


**hh**  
**hik hasi**

**195**

**20 urte euskal hezkuntza ospatuz**



**EL MARTINET IKASTETXEA • KARMELE PEREZ • LOMCE-RI EZ**

**0-3 FORMAZIOA: IRUÑEKO EGUNSENTI HAUR-ESKOLA**

**HIZKUNTZA- ETA KULTURA-ANIZTASUNA • PROGRAMAZIOA • NAROA GAINITZA**

# 7. **elkar** ILUSTRAZI

## ETA IPUIN LEHIAKETA

oinarriak:  
[www.elkar.eus-en](http://www.elkar.eus-en)  
eta elkar sareko  
liburu-denda  
guztietan



petrich

antolatzailea

**elkar**  
fundazioa

laguntzaileak:



**LABORAL**  
kutxa

# aurkibidea



**8**  
gaia

## EL MARTINET ESKOLA

Bartzelonako Ripollet herriko El Martinet eskolan “autonomia, autogestioa, erabakimena eta ezagutzaren eraikuntza” ez dira hitz soilak, praktikan egunero Haur Hezkuntzan bezala Lehen Hezkuntza osoan proiektuak lan eginez egikaritzen diren baliokak baizik. Goiz bat eman du bertan Hik Hasi-k.



**16**  
elkarrizketa

## KARMELE PEREZ

Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan ahozko hizkuntzaren didaktikaren gainean eginiko hiru urteko prestakuntza-prozesuaren aztarnak jaso ditu bere tesian, fokua ahozkoaren didaktikan, etengabeko prestakuntzan eta unibertsitatearen eta eskolaren harremanean jarririk, besteak beste.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

**EL MARTINET IKASTETXEA**, beste eredu bat

16 elkarrizketa

**KARMELE PEREZ**, MUko HUHEZIKo doktorea

24 LOMCEri ez! Gure hezkuntza eraiki!

27 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa.

**Egunsenti haur-eskola.** Inma Ajona eta Edurne Lekunberri

30 esperientzia

**Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna.** Naiara Berasategi

36 galdeidazue

**Zertan lagun diezaioke ikasleari gaztetatik programatzen ikasteak?** Nerea Atxega

40 hik hasi-ren proposamena

**‘Arbel beltza’** erakusketa

42 Atzeko atetik

**Naroa Gaintza.** Abeslaria eta irakaslea

Argitaratzailea: **XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPIZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus);  
Posta Elektronikoa: [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.  
Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxebarria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gofii, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez, Matilde Sainz eta Amaia Vazquez. Administra-  
zioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANtZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2015-01-27). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.





# 20. ikasturtean harpidetzen direnentzako OPARIAK



**hik hasi**  
harpidetuta



**Sarrionandiaren  
Ipuin laburren  
liburua**



**Hazi Hezi**  
harpidetuta



**69 abesti  
jolasteko  
CDa**



+



+



[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)

# editoriala otsaila

## Egin daiteke, egiten da



**Ez al gara bada ari ikasle solidarioak, kritikoak eta autonomoak sortu nahian? Hezkuntza-eredu berritzaile, parekide eta euskalduna eraikitzeke lanean? Eskola-komunitate guztiaren parte-hartzea sustatzen?**

“Oraindik ez daki hizki txikiak irakurtzen” edota “asko falta zaio biderketak ondo egiten ikasteko”. Haurra oraindik egiteko gai ez den horretan jarri ohi dugu sarri arreta, ikasteko falta zaion horretan. Umea hutsuneetan neurtzen dugu askotan, eta ez dituen gaitasunetan. Baina berdin jokatzeko dugun geure buruarekin ere: irakasle lanaren, ikastetxearen funtzionamenduen nahiz eskola-komunitatearen jardunaren ahulguneak samurrago ikusten ditugu indarguneak baino. Egiten ez dugun horretan jartzen dugu begirada.

Eta alderantziz egingo bagenu? Egunero eraikitzen ari garen horri kasu egingo bagenio? Egiten dugun horretan arreta jarri eta gure jarduneko alderdi positiboekin jaramon egingo bagenie, zer? Aldizkari honetako 25-26 orrialdeetako galdetegiarekin ikusarazi nahi


izan dugun moduan, ez al gara bada ari ikasle solidarioak, kritikoak eta autonomoak sortu nahian? Hezkuntza-eredu berritzaile, parekide eta euskalduna eraikitzeke lanean? Eskola-komunitateko kide guztien parte-hartzea eta erabakitzeko ahalmena sustatzen? Konpetentzien garapenera zuzendutako marko metodologikoa erabiltzen? Eta abar luze bat?

Araudi zurruna, curriculum dekretuak, bete beharreko legeak, egitura hertsia... “Sistemak ez digu uzten”, esan lezake baten batek. Egia da ikastetxeek eta irakasleek hainbat elementu aurka dituztela, eta ez dela samurra oztopoz beteriko bidean aurrera egitea, baina badira zirrikituak, badira heldulekuak, badira ekinbideak... Elkarrizketa nagusian Karmele Perez doktoreak dioen moduan, irakasle batek ezin du eskola aldatu, baina aldatu ahal

izango du bere ikasle ikasteko modua, irakaslearen esku gauza asko dauka.

Sistemari errua botatzea ez dela aski argi erakusten du erreportaje nagusian jasotako El Martinet eskola publikoko esperientziak ere. Oinarrizko curriculumak, Kataluniako Govern-ak ezarritako dekretuak edota Madrildik LOMCE-rekin agindutako arauak bete behar dituzte haiek ere. Hala ere, hasi 3 urtetik eta 12ra bitartean proiektuak lan egiten dute, adin guztietako ikasleek nahasian, testulibururik eta irakasgaika banatutako ordutegi hertsirik gabe, haurren gaitasunetan oinarrituz, haien interesetan eta egiten dakiten horretan arreta jarritz, eta bakoitzaren erritmoak errespetatuz. Sistema barruan ere beste eskola eredu bat posible dela frogatu dute.

Egin daiteke eta egiten da.



**“Ikastolatik hainbat milaka ume pasatu eta gero, kalean erdaraz hitz egiten da eta dena erdaldun bihurtzen ari da. Gazteak erdi-euskaraz erdi-erdaraz entzuten dira, txiki-txikiak ere erdaraz. Orduan, zein aurrerapauso eman dugu?”**

**Itziar Aizpurua**

# hizpide

## Sopuertako gurasoek eutsi egin diote haurrek euren herrian eskola publikoan ikasteko eskariari

*Sopuertako eskola publikoaren inguruko gatazkak bere horretan dirau. Urtarrilaren erdian Eusko Jaurlaritzak “bukatutzat” eman zituen arazoa konpontzeko negoziazioak, akordiorik lortu gabe. Baina herrian Lehen Hezkuntzako eskaintza publikoa ezarri nahi duten gurasoak ez daude amore emateko prest, eta Handitzen guraso elkarteak adierazi du aurrera jarraituko dutela “haurrek euren herrian eskola publikoan ikasteko eskubidea” bermatu arte. Mobilizazioak egingo dituzte otsailean hasiko den matrikulazio aldian eta berriro matrikulatuko dituzte haurrak La Baluga ikastetxe publikoan, eskola horretan Lehen Hezkuntzarik ematen ez den arren. laz ere hala egin zuten, eta soka luzea ekarri zuen erabaki horrek: ikasturtea hasi zenean, umeak La Balugara bidali zituzten irakasle boluntarioekin, eta horrek gatazka piztu zuen Hezkuntza Sailarekin. “Elkartasun deia” ere egin diete eskola publikoaren alde dauden guraso guztiei, eta aurrematrikulazio aldian, eskaera agiria betetzean, aukeraturiko eskolarekin batera Sopuertako La Baluga ere jartzeko eskatu diete.*



## Nafarroako Gobernuak Bigarren Hezkuntzako curriculumaren zirriborroa plazaratu du, LOMCEren irizpideei atxikita

LOMCE Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa ezartzeko prozesuan, beste urrats bat egin du Nafarroako Gobernuak: Bigarren Hezkuntzako ikasketetako edukiak zedarritzeko foru dekretuaren zirriborra kaleratu du. Urtarrilaren erdian kezka adierazi zuten Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenduko ardura-dunek dekretu hau behar bezala egiteko aski denbora ez zegoela argudiatuta. Are gehiago, beste hainbat erkidegorekin batera, LOMCE ezartzeko epeak atzeratzeko eskatu zioten Espainiako Hezkuntza Ministerioari. Baina Jose Ignacio Wert Hezkuntza ministroak argi utzi zuen ez zuela atzerapenik onartzeko inolako asmorik. Beraz, erlojuaren aurkako presioari erantzun, eta foru gobernuko hezkuntza arduradunek bete dute Madrilan agindua: egin dute bidea heldu den ikasturtean DBHko lehen eta hirugarren mailak eta Batxilergoko lehena molde berrian hasteko.

Curriculum zirriborroaren arabera, oso urriak dira ikasleei enborreko ikasketetan euskarari buruz egin beharreko erreferentziak. Hala dio: “Euskara nafarren kultur herentziaren parte gisara baloratu behar da”. Kultura eta geografiari buruzko erreferentzietan oparoena da Geografia eta Historiarekin lotutako edukiak batzen dituen atala. Espainia da ematen den erreferentziarik ohikoena, eta horren barruan, Nafarroa. Ikasleek ezagutu beharreko sinbolo esanguratsuen artean, hiru aipatzen dira: erkidegoko armarrria, bandera eta ereserkia. Irudiak marrazteko eta kantua abesteko gai izan behar dute neska-mutilek. Enborrekoak ez diren ikasketetan, etikarekin lotutako edukietan, besteak beste, Espainian armadak duen funtzioari buruzko ezagutzak proposatzen dira ikasleentzat.

# izan da

## D eredia zabaltzeko gutxieneko akordioa egin dute Nafarroan

Euskarazko irakaskuntza eremu ez-euskalduneko sare publikora eramatea babestu du Nafarroako Parlamentuko gehiengoak, baina desadostasunak bistan utzi dituzte bat egin duten alderdiek. D eredia hedatzeko ados daude denak, baina helburu ezberdinak dituzte: sare publikoan euskaraz ikasteko aukera ematea da batzuen asmoa; besteena eremu ez-euskaldunean euskara ofizial egiteko pausoa ematea.

Akordioari eutsi diote legea aldatzea proposatu zuten hiru taldeek: PSNk, Ezkerrak eta Geroa Baik. Haiei batuta daude Bildu eta Aralar-NaBai. Gehiengoa dute, hortaz. Eremu mistoko sistema —Iruñerrian dutena, esaterako— eramango dute eremu ez-euskaldunera: eskola publikoetan D ereduan aritu ahal izango dira hori eskatzen duten ikasleak, baina euskara ikasi nahi ez dutenek ez dute trabarik izango —G ereduak abian segituko du; erdara hutsezkoa da, euskara ikasgai ere ez du—.

Ikastolek bakarrik ematen dute D eredia orain eremu ez-euskaldunean, eta haiekin zer gertatuko ote den, horrekin daukate kezka. Nafarroako Ikastolen Elkartek parlamentuko taldeei proposatu zien zuzenketa bat egitea, gobernuak ordain zitzan ikastola horietako garraioa eta jantokia. Hiru taldek eraman dute eskari hori parlamentura: Garoa Baik bere horre-

tan; Bilduk eta Aralar-NaBai, aldaketa batekin: “behin behinekoa” izatea neurria —beste taldeen babesa lortu nahi zuten hala—. Adostasunik ez da izan, ordea. PSNk eta Ezkerrak ez dute uste bidezkoa denik ikastola horietako garraioa eta jantokia ordaintzea.

UPN eta PP ere ikastolen egoeraz mintzo dira, baina beste helburu batekin: eremu ez-euskalduneko sare publikoan D eredurik ez eskaintzea nahi dute. Eskaria “aseta” dagoela diote, eta publikoan eskaintzea “oreka haustea” dela. Kontuan izatekoa da, gainera, 2014ko urte amaieran eremu mistoko euskarazko irakaskuntza murrizteko zuzenketa aurkeztu zuela PPK. Horrek D ereduaren eskaintza publikoa eremu ez-euskaldunekoaren pare jarriko luke Nafarroan. Euskarazko hezkuntza publikoa eremu ez-euskaldunera zabaltzearen aurka agertu zen PP, eta horretarako eremu mistokoa murrizteko proposamena egin zuen.

D eredia lurralde osora zabaltzeko Parlamentuan gehiengoz onartutako lege proposamenaren arabera, aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean bertan indarrean sartuko da aldaketa: D ereduan ikastea eskatu ahal da eremu ez-euskalduneko sare publikoan. Epeak ikusita, hala ere, zail dirudi datorren irailean bertan Nafarroa osoan euskaraz ikasi ahal izateko aukera abian izatea.

## Seaskak lurra erosiko ditu Kaskarotenearentzat

Azken aterabide gisa, Seaskak Ziburuko Kaskarotenea Ikastolarentzat lur pribatua erosteko deliberoa hartu du. 300.000 euro balio duten lurra ondoko egunetan erosiko ditu ofizialki Seaskak, eta diru hori biltzeko kanpaina bat hasi du. Besteak beste, datorren maiatzaren 10ean egingo den Herri Urratsen ateratzen den dirua horretara bideratuko da, baina bertso-saioak, kirol-erakustaldiak eta beste ere egingo ditu.

Laida Mujika ikastolako lehendakariaren hitzetan, ez da izan nahi zuten aterabidea: “Herriko etxeak ikastolaren ardura hartzea nahi genuen guk. Zerbitzu publiko bat eskaintzen dugu; beraz, normala iruditzen zitzaigun herriko etxeak bere gain hartzea lurra edo zerbait... Ez dugu lortu”. Muturreko egoerara helduak dira, eta lur pribatuak erosi ezean, Ziburuko Kaskarotenea Ikastolak ateak itxi beharko lituzke. Ez da eremu pribatuan egingo den ikastola bakarra, gaur egun ere Iparraldeko ikastolen herena hala baitago eraikia.

2012an ikastola sortu zenetik, herriko etxeak utzi zion gune berean da uneotan Kaskarotenea, Marinela auzoan. Azken hilabeteetan, ordea, Guy Poulou auzapezak hamaika ahalegin egin ditu handik kanporatzeko: argindarra eten zien, Paueko Auzitegira jo zuen eta ikastola hori egoten den egun bakoitzeko 100 euroko isuna ordaintzera kondenatu zuten.

# hizpide



## Noemi Beneito psikopedagogo Berriozarren eta Donostian izango da, Pikler-Lóczy elkarteak gonbidatuta

Otsailaren 27an eta 28an Berriozarren eta martxoaren 3an, 4an eta 5ean Donostian jardunaldiak egingo dira garapenaren akonpainamendua gaitzat hartuta. Bietan Noemi Beneito psikopedagogo argentinarra ariko da hizlari: pedagogia terapeutikoan aditua da eta psikomotrizitatean espezialista. Argentinako Psikomotrizitate Elkarteko eta APLA Argentinako Pikler sareko ko-fundatzailea da. Gaur egun, Peru, Bolivia, Chile eta Argentinako formakuntza eta prestakuntza instituzioetako aholkulari lanetan dabil.

Besteak beste, akonpainamenduaren kontzepzioaz, haurren garapen mailez, motrizitate autonomoaz, desplazamenduez, erlazio afektiboez, ezaugarri bereziko hurrekin akonpainamenduak duen garrantziaz, gurasoez edota jolasaz mintzatuko da. Bi jardunaldiak Euskal Herriko Pikler-Lóczy elkarteak antolatu ditu. Elkarteko bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzeko eta bazkide ez direnek 40 euro. Berriozargo saioa otsailaren 27an 17:30etik 20:30era eta otsailaren 28an, 9:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era izango da herriko auditorioan; Donostiako berriz, martxoaren 2an, 4an eta 5ean, 17:30etik 20:30era Donostiako Megisterio Eskolan.

Izena emateko edota informazio gehiago eskuratzeko *formakuntza-formacion@piklerloczy.org* helbidera idatzi behar da.

## ‘Jolasaz hezi kalea bizi’ jaialdia egingo da otsailaren 21ean Zarautzen, Amarauna sareak antolatuta

Hezkuntza ez formalari dagokion garrantzia emateko, eta bide batez, Amarauna sarea —Euskal Herriko aisialdi taldeen arteko sarea— ezagutzera emateko, *Jolasaz hezi kalea bizi* jaialdia antolatu dute otsailaren 21erako Zarautzen. 12:00etan emango zaio hasiera jaialdiari Irrien Lagunen ikuskitzuna erekin; 14:00etan bazkaria egingo da eta 16:00etan bertso-showa eta umeentzako ipuin kontalaria izango dira; 17:30ean berriz, erromeria egingo da eta 19:00etan kalejira; amaitzeko, 21:00etan Uluka, Pixontxis, Bidelapurrrak eta Atxurre taldeak ariko dira Putzuzulo gaztetxean; egun osoan zehar, hainbat gunetan jarduerak egingo dira: jolasak, azoka, puzgarriak eta tailerrak, besteak beste.





# izango da

## Irrizale izendapen ekitaldia ospatuko da otsailaren 27an Albaolan



Irrien Lagunak proiektuaren eta IRRIA aldizkariaren sustapenean bide-lagun izan dituzten udal, ikastetxe, enpresa eta bestelako eragileei esker ona adierazteko eta haien lana aitortzeko,

Irrizale izendapen ekitaldia egingo da bigarrenenez, Pasaiaiko Albaola Itsas Kultur Faktorian, otsailaren 27an 10:30ean hasita. Sarituek oroigarriak eta "Bizipoza auzolan" disko-liburua jasoko dute.

## Gazteen sormena lantzeko kluba sortu dute Tolosaldean

Gaztek izenburupean, sormena eta teknologia uztartzen dituen egitasmo berria sortu dute Tolosaldean. Bizzia enpresak Doplay-rekin batera garatu du proiektua. Elkarlanean aritu dira Laskorain Ikastola eta Obeki eta Mecanizados Harri enpresa ere.

Gazteen sormena, ekintzailetasuna eta autonomia sustatzea xede duen hezkuntza proiektua da Gaztek, haur zein gazteen heziketan hutsune bat betetzeko helburuarekin jaio da. Arduradunen arabera, hizkuntzarekin edota kirolarekin loturiko eskolaz kanpoko jarduera ugari egin ohi dira; teknologiarekin loturiko ekinbideak, baina, oso urriak dira, eta hain justu, alor hori lantzeko sortu dute Gaztek. Tolosako Laskorain ikastolan hasi dira proiektua berri-tzaile hori lantzen, gazteek euren proiektu zientifiko-teknikoak garatzea bultzatzea helburu hartuta. Duela hilabete batzuk robotikari eta bideo jokoei buruzko tailerrak eskaini ostean, pauso bat harago eman eta proiektua indartu dute; tailerrak gehitu dituzte eta klub izaera eman diote. 8 eta 17 urte bitarteko Tolosaldeko gazte orori irekia da taldea, asteen behin biltzen da Laskorain ikastolan, eta era guztietako tailerrak egiten dituzte.

## Ikastolen jardunaldi pedagogikoak egingo dira martxoaren 11n eta 12an Gasteizen

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren berrikuntza aukerak aztertzeko xedez Ikastolen Elkartek XXII. jardunaldi pedagogikoak antolatu ditu martxoaren 11 eta 12rako Gasteizko Goiuri jauregian, *Hobeak izateko habeak* izenburupean. Besteak beste, Angel Perez Gomez Malagako Unibertsitateko katedradunak eta Javier Onrubia Goñi Bartzelonako Unibertsitateko katedradunak hitz egingo dute aniztasunari, irakaskuntza pertsonalizatuari edota hobekuntzarako ebaluzioak duen garrantziari buruz.



# GAIA

## EL MARTINET ESKOLA

*Beste eskola eredu bat 475 haurrentzat*





**Bartzelonako Ripollet herriko Can Mas auzo zaharkituak zituen hezkuntza- eta zerbitzu-premiei erantzuteko erronka aukera gisa baliatu zuten eskola berritzaile bat egiteko ametsa zuten ibilbide luzeko hainbat irakaslek. Eta ametsa gauzaturik, duela hamar urte zabaldu zituen ateak El Martinet eskolak. Bertan “autonomia, autogestioa, erabakimena eta ezagutzaren eraikuntza” ez dira hitz soilak, praktikan egunero Haur Hezkuntzan bezala Lehen Hezkuntza osoan proiektuak lan eginez egikaritzen diren balioak baizik.**

**Hik Hasi-k goiz bat eman du bertan, eta apirilean hango irakasleak etorriko dira Donostiara, El Martineteko esperientziaren berri ematera.**

## Goiz bat Kataluniako El Martinet eskolan

Lasai datoz haurrak eskolara. Amarekin, aitarekin, beste senitartekoren batekin... Baina lasai denak, oro har. Bederatziak aurretik sartu dira gehienak, baina, bederatziak pasatuta ere, presarik gabe datoz haurrak eskolara. Ez da txirrinik, klaxonik, ez eta istilurik edota garrasirik ere; musika entzuten da bozgorailuetatik. Barruraino doaz haur eta gurasoak, eskaileretan gora, geletaraino. Maisu-maistrak agurtzen dituzte, eta beste haurrak, gurasoak, langileak... Haur batek bezperan egin duen marrazkia erakusten dio aitari; beste guraso bat irakasle batekin mintzo da, sukar apur batekin jaiki omen da neskatoa...

Une bizi eta dinamikoa da eskola-sarrerako unea Ripolleteko El Martinet eskolan (Bartzelona), baina lasaia eta pausatua, aldi berean, bai haurrentzat, bai guraso edo aitona-amonentzat eta bai irakasleentzat ere. Egunero-egunero, egokitzen diren aldiko goiz bat balitz bezala, eskolak harrera egiten die haurrei eta familiei, eskolako sarrerak berak erakusten du haurraren umoreari eta izaerari arreta jartzen diotela egunero, hau da, bagaje afektiboari leku egiten diotela eskolan: “bagaje pertsonal horrek haur hori bakan eta desberdin egiten du, eta horrela hartzen ditugu haur guztiak, egunero, El Martineten”.

Hitz horiek *Entramados* (Grao) li-

burukoak dira, El Martineteko irakasleek euren pedagogia berritzailea azaltzeko idatzirik liburu-tako batetik harturikoak. Izan ere, hala Katalunian nola lurraldetik kanpo, El Martinet eskola publikoa ikastetxe eredugarritzat hartzen da, ongizatean eta errespetuan oinarrituriko pedagogia aurrerakoi eta berritzailegatik; izaera kolektibo eta komunitarioagatik; espazio eta ingurune aberatsengatik eta nortasun demokratiko eta berdinzaleagatik. *hik hasi*-ko kideek euren begiz ikusi dute eskolako bizitza; goiz bat igaro dute hango umeen eta irakasleen artean, Olga Romera irakaslearen laguntzarekin.

Pixkanaka, geletan batzen ari dira haurrak, eta gurasoak nahiz aitona-amonak irteten ari dira, haur bakoitzak behar duen denboraren arabera, igaro duen gauaren arabera... Adin bereko kideekin elkartzen dira haurrak egunaren hasieran erreferentziazko gelan, erreferentziazko irakaslearekin, eta, egun osoan zehar ume bakoitza bere jardueran aritu ostean, adin bereko taldekideekin eta erreferentziazko irakaslearekin elkartuko dira guztiak berriro jardunaldiaren amaieran, ikasgela berean. Egunean zehar, barruko nahiz kanpoko espazioetan, guneetan eta lantegietan ibiliko dira ikasleak, bakoitza berean, eskuarteetan dituzten proiektuak gauzatzen.



# G

## Hamar urteko ibilbidea

2003-2004 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bat sortzeko beharra zeukan Kataluniar Hezkuntza Departamentuak Barzelona hiritik 20 minutura dagoen Ripollet herrian. Can Mas auzo zaharrea eraiki zuten eskola, eta, horrela, kartieraren zerbitzu eta baliabid- eskasiari erantzun nahi izan zion administrazioak. Auzoaren ezaugarri izan da 50eko eta 60ko hamarkadetan Espainia hegoaldeetik jasotako immigrazio masiboa, eta, gaur egun, adineko biztanleria eta etorkinen uholde berria nahasten dira eraikin zahar grisez beterik dagoen auzune horretan.

Behar hori aukera gisa ikusi zuten esperientzia luzeko hainbat irakaslek. Hezkuntza-departamentuak ikastetxei aitortzen zien programa-autonomia baliatuz, eskola garaikide bat eraikitzeko erronka beren gain hartu zuten Montserrat Navarrok eta beste hainbat hezitzailek: "Proiektuan interesa genuen irakasleok hainbat balio zahar, ohitura eta inertzia mahai gainera atera genituen, eta, hasiera-hasieratik, gure eskolari begi berriekin begiratu nahi izan genion. Eskola honi buruz pentsatu genuenean, garapen pertsonal eta sozialerako espazio pribilegiatu gisa planteatu genuen; leku adeitsu eta atsegin bat, lasaia eta bizigarria, eraiki nahi genuen, bertan parte hartuko zuten pertsona guztien bizi-kalitatearen hobekuntza bermatuko zuena; eta, horregatik guztiagatik, konpromiso sozial handi bat hartu genuen gure auzoarekin". Horixe da El Martineten goiz bat pasatuta bisitariak duen sentsazioa: ongizatea zaintzen dela ikusten da; dina-

mikoa eta, era berean, lasaia da giroa, bai haurrentzat, bai irakasleentzat, bai langileentzat eta bai gurasoentzat ere.

Aurrez hamaika prestakuntza-saiotan, eskolatan eta bileratan elkarturiko irakasle talde baten ametsa izan zen lehenik El Martinet; gero, proiektu bat, eta, gaur eraikia eta egikaritu den arren, abentura eta aldaketa berrien aterpe izaten jarraitzen du Can Maseko eskolak egunero-egunero, lehen aldiz ateak ireki zituenetik hamar urtera. "Hasieratik gaur arte, egokitzen, aldatzen eta hobetzen joan gara, eta etengabeko behaketa, hausnarketa, elkarriketa eta prestakuntza izan ditugu horretarako baliabide", azaldu du Romerak.

2004-2005 ikasturtean estreinatu zuten Haur Hezkuntzako eraikina, eta horrela sortu zen El Martineteko txikien komunitatea, 5 urte arteko haurrekin. Haren ondotik, ertainen komunitatea (6 urtetik 8ra bitarteko haurrak) eta handiena (9 urtetik 11ra bitartekoak) sortu dira, bakoitza 150 haurrekin eta etapa bakoitzari dagozkion irakasleekin. Ikasturte honetan, 475 haur hartu

ditu eskolak, eta 25 hurreko ratioa du gelako. Alta bada, El Martineten ezaugarrietako bat da ikasleak geletan adinaren arabera ez bereiztea, soilik egunaren hasieran eta amaieran elkartzen dira erreferentziazko gelan kide eta irakasle erreferentziazkoekin; baina, izan adinkide edo ez, hiru komunitateetako haurrak elkarrekin harremanetan daude egunean zehar, irakasleak gidatu gabeko topaketa naturaletan. "Haur guztiak nahasirik ez dauden arren, ezaugarri garrantzitsua da adinen aniztasuna, horrek ikasketa- eta jabeakuntza-prozesua aberasten duelako, eta bizitza ere halakoxea delako, bai txikien kasuan eta baita handien kasuan ere", Romerak azaldu duenez.

El Martineten beste ezaugarri bat espazioen antolaketa da: geletan, ez dago aulki eta mahaitxorik, ezta arbelik ere; ez txikien komunitatean, baina ezta ertainen eta handien solairuetan ere. Geletako hormen eta materialen kolore neutroek eta kristal handiek arreta erakartzen dute; kanpotik barrukoa eta barrutik kanpokoa ikus daiteke, eta



gardentasun eta iragazkortasun fisiko-tik harago iradokitzen dute kristal horiek. Gela barruan edo eskola barruan egiten dena kanpoan ikus dadin aukera ematen du. Eta, era berean, natura barreneraino sartuta dago: egur-koloreak natura iradokitzen du, eta material organiko ugariak ere naturaren usaina dakarte.

Eskolako espazio guztiak, gelak, geletako mikroespazioak, korridoreak, gunek, lantegiak, kanpoko espazioak, jangela, sukaldea, eta abar proiektu pedagogikoaren zerbitzura daude, eta guztiak daude ikasleen arteko harremanak sustatzeko pentsatuta eta ikasteko prestatuta. Izan ere, barne eta kanpo espazioak nahiz eraikina bera diseinatzeko orduan, proiektu pedagogikoa izan zuten abiapuntu irakasle eta arkitektoek. Navarrok dioenez, "eraikina erabilera anitzeko ingurune aldakor gisa" pentsatu zuten, eta "ikasmahaiak eta aulkiak dituen eskola tradizional bat baino gehiago, etxe bat dirudi". *Entramados* liburuan jaso zutenenez, espazioaren antolaketak ikasketa-prozesuari buruzko galdera eta hausnarketa asko eginarazi zizkien irakasleei: "Ikasketak beharrezko du haurren begirada eta arreta norabide bakarrean zuzentzea, eta irakasleak esaten duenera edo arbelean idazten duen horretara bideratuta egongo den espazio bat behar du? Edo begiraden arteko elkarrekintza sustatuko duten espazioak behar ditu ikasketak, ikuspegi eta ikuspuntu askotarikoak ahalbidetuko dituzten espazioak?".

Txikien komunitatean, adin guztietako haurrak nahierara mugitzen dira euren solairuko gela batetik bestera edo lantegietatik lorategira. Mugimendua, garapen-motorra eta adierazpena ahalbidetzen dizkieten 45 mikroespazio dituzte eskura, kanpoan zein ba-



rruan; mugitzeko eta energia xahutzeko aukera ematen diete, baina baita lasaitasuna eta sosegua ere; eskuekin lan egiteko aukera ematen dieten espazioak dira, urarekin, irinarekin, haziarekin... esperimendatzeko aukera ematen dieten espazioak; egiteko, probatzeko diseinatu dituzte mikroespazioak; garapen-motorra lantzeaz gain, usaimena eta zentzumenak garatzeko aukera ematen dieten materialak proposatzen dizkiete gune horietan umeei, egitura gabeko material naturalak.

Txikienek eurek erabakitzen dute noiz, non eta norekin egon, eguzkia ala euria egin. Baldintza bakarra irteetan kaleko oinetakoak janztea da, eta botak euria ari duenean; eta, bustiz gero, aldatzeko arropak dituzte guztiek. Oso txikitatik, haurren erabakimenari garrantzia ematen dio irakasle taldeak.

Txikien komunitatean, hitzak, abestiak, hau da, adierazpenak eta garapen-motorrak, leku handia zuten; bada, ertainen komunitatean, idazketa eta irakurketarako proposamenak eskaintzen dituzten mikroespazio ugari daude, baina ikerketak eta gorputz-adierazpenak ere garrantzia izaten jarraitzen dute, ikasketa burutik ez eze gorputzetik pasatzen baita. Hala, bada, animalien espazioan ikertzen ari dira goiz honetan hainbat haur; haiei buruz

irakurtzen eta idazten ari dira, animalien katalogoak egiten batzuk, ipuinak isilean irakurtzen beste batzuk, eta hegazti fantastiko bat sortzen beste bat, buru-belarri. Ertainen komunitatean, nor bere interesen arabera erabakitzen du zer landu unean-unean; irakasleek ondo pentsatu eta aukeratutako kalitatezko materiala dute lantegietan, kanpoan nahiz barruko espazioetan, eta, horrela, bakoitzak bere erritmora ikasten du. Esate baterako, haur bakoitzak erabakitzen du espazio matematikoan muntaketa eta zenbaketa-lanak egin material anitzekin, edo idazketa-irakurketa prozesuan murgildu; haurrak horretan interesa baldin badu, eskura hamaika liburu, entziklopedia, koaderno eta abarrez beteriko mikroespazio ugari ditu. Ez espazio batzuetan ez besteetan, ez komunitate batean ez bestean, inor ez da behartzen egin nahi ez duen lanik egitera, garrantzia handia ematen baitiote El Martineteko irakasleek txiki-txikitatik hasita haurren garapena eta erritmoa errespetatzeari.

Handien komunitatean proiektukaxekin egiten dute lan 9 urtetik 11ra bitartekoek. Ez oinarriko curriculumaren eskariak, ez Kataluniako Gobernetik egiten direnak ez Madriletik LOMCEk egiten dituenak ere ez dituzte

ikasgaietan banatzen, proiektuetan baizik, ingelesezko antzezlan bat prestatuz, uraren kanalizazio bat diseinatuz edota munduan barrena bidaiari bat antolatuz, korridoreko espazio batean lau neska ari diren eran. Ez daukate testulibururik; horren ordez, ondo aukeraturako hamaika liburu eta entziklopedia dituzte apalategietan. Ikasleen beharretatik eta interesetatik abiatuz, irakasleak prestatzen dituzte proiektuak, eta astearen hasieran ikasle bakoitzak aukeratzen du aste horretan zer landuko duen. Kaxa horrek talde-lanean egiteko proposamen artistiko bat baldin badauka, adibidez, lantegian egingo dute lan ikasleek, eta, lantegi horretan, beste komunitate eta adin batzuetako kideekin elkartzeko eta elkarrengan eragiteko aukera izango dute. Era berean, lorategian lantzeko proposamen bat izan dezake kaxak, handien komunitatekoek ere denbora luzea egiten baitute lorategian. Kanpoko espazioa ere esperimentatzeko eta ikasteko espazio gisa dago pentsatuta eta diseinatuta, hau da, haurrei aukerak emateko espazio gisa, harremanetan jartzeko, ikertzeko eta sortzeko espazio gisa.

Oro har, txikietatik handietara, lau ardatzen inguruan prestatutako espazioak dituzte aukeran egunero El Martineteko ikasleek: "Autonomia, autogestioa, erabakimena eta, laugarrenik, ingurunearen, munduaren, objektuen, besteen eta norberaren aurkikuntzan lagunduko duten esperientzia errealean eraikitzea". Ardatz deituriko horiek ez dira hitz hutsaletan gelditzen, eta oso ondo ulertzen da hori eskolan goiz bat igaro ostean: buru-belarri ari dira haurrak ekinean, banaka nahiz taldeka, isilean nahiz elkarrekintzan, nor bere erritmoan ikasten.

## El Martineteko irakasleak

Aurrean handia egiten dute El Martineteko irakasleek, proposamenak oso ondo pentsatzen eta diseinatzen dituzte, eta zer-nolako materialak hautatu aztertzen dute, aukerak zabalagoak eta aberatsagoak izan daitezzen. Txikien solairuko marrazketa-gelan, esate baterako, mikroespazio batzuetako proposamenak sentsorialagoak eta lasaiagoak dira; beste batzuek trazua lantzeko aukera eskaintzen dute; bertikalean edo horizontalean marrazteko aukera, adibidez, oso ondo pentsatuta dago, haurrek askotariko adierazpideei erantzuten dieten proposamenak izan ditzaten eskura. Trazua egite hutsak, hasieran, behar motorrari erantzuten dio, eta, denborarekin, pentsamenduren bati erantzuten diote marrazkarekin. Espazio bakoitzean, beti irakasle berbera egoten da, baina El Martineteko irakasleak, ez Haur Hezkuntzan ez Lehen Hezkuntzan ere, ez dira ikasgaietako irakasleak, haur bakoitzaren jabetze- eta ikasketaren prozesuaren laguntzaileak baizik.

El Martineteko lantaldeak "haurren laguntzaile dinamiko eta hausnartzaile" gisa ikusten du irakaslea, eta "berrikuntzari eta ikerketari lotuta" dago: "Haurrari bere dimentsio guztietan entzuteko gai izan behar du irakasleak, ikusten, entzuten eta sumatzen duenari esanahia ematen jakin behar du". Beraz, irakasle guztiak izan behar duten jakintza kognitibo-zientifikoaz gain, kultura eta errealitate garaikidearekiko jakinduria eta jakin-mina balioesten dituzte El Martineten, eta garapen pertsonalean prestatzeari garrantzia

handia ematen diote.

Alabaina, alderdi askotan beste eskola-eredu baten antza baldin badu ere, sare publikoko ikastetxea da El Martinet, hala izaeraz nola egituraz. Beraz, administrazioak ezartzen dituen hainbat arau bete behar ditu, besteak beste, irakaslearen kontratazio publikoari dagokiona. Sorburuan eskola berrituz erakitzeko proiektuak batzen zituen irakasleen talde bat baldin bazegoen ere, gerora, denborarekin eta hezkuntza-sistema publikoaren mugikortasunaren ondorioz, aldatuz joan da egitura, administrazioa baita ikasturte hasieran eta ikasturtean zehar zentroetako langileen zerrendak osatzen dituena, eta ez eskola. Hara jotzen irakasle batzuek proiektuak erakarri baditu ere, halabeharrik ekarri ditu beste batzuek, eta, horrexegatik, prestakuntzari eta norberak bere burua prestatzeari garrantzi berezia eman diote zentro honetan, proiektu komunitarioak iraungo badu konpromisoa erakutsi behar baitu irakasleak. Irakasle berriek beterano baten laguntza izaten dute ondoan, gatazken aurrean edo zailtasunen aurrean behar dutenero babesa izan dezaten. Eskolari buruzko dokumentazioa eta bibliografia interesgarriak ematen dizkiete batez ere epe luzearako datozen irakasleei, eta eguneko eguneko balioesteko bilerak egiten dituzte guztiekin.

27,5 irakasleko langile-zerrenda du gaur egun El Martinetek. Eta, horrez gain, sukaldaria, sukaldeko laguntzaileak eta bestelako laguntzaileak ere hezkuntza-proiektuaren kide dira.

## Ebaluazioa

**Irakasleen kontratazioarekin batera, hezkuntza-sistemak arautzen duen eta El Martinetek bete behar duen beste puntu bat ebaluazioarena da. Alabaina, Ripolleteko eskola honek ebaluazioa ez du nota gisa ulertzen, jarraipen gisa baizik. Haurrek eta familiek ez dute, beraz, zenbakirik edo kalifikaziorik jasotzen ikasturte amaieran, erreferentziarako irakasleak espazio bakoitzeko irakasleen laguntzarekin osaturiko txostena baizik. Eta ez dute azterketarik egiten. Handienetan, autoebaluaziorik oso lotuta dago ebaluazioa: haur bakoitza bere ikasketa-prozesuan non dagoen jabetzeari garrantzia ematen diote, eta ikasturte amaierara itxaron gabe, ikasturtean zehar ikasle bakoitzaren indargune eta ahulguneei buruz hitz egiteko tarteak biltzen dituzte.**

Beste eskoletan bezala, irakasle espezializatuak dituzte ingeleserako, gorputz-hezkuntzarako, musikarako...

Baina El Martinet ez dute ikasleek, irakasleek eta langileek soilik osatzen. Gurasoak eta aitona-amonak eskolasarrerako unean ez ezik -hots, goizeko 9etan- egunean zehar ere sartzen dira eskolara, sukalderraino. Txikienen gosaria prestatzen ari dira hainbat guraso gaur goizean -ertainen eta handien komunitateetako ikasleek eurek prestatzen dute fruta-, solasean euren artean, haurrek ekarritako aleak prestatzen dituzten bitartean. Gosaltzea, bazkaltzea bezala, esperientzia bat da eskola honetan, bizipen bat gehiago, irakasgai bat gehiago, baina esperientzia hori senitartekoekin partekatzen dute. Gurasoak euren artean atondutako egutegi baten arabera antolatzen dira txikienei goizero fruta-gosaria emateko.

Beste guraso bat ikasmaterialak azaleztatzen ari da irakasle gelan. Zeregin horiek guztiak ondo pentsatuta eta diseinatuta daude El Martineten. Gurasoen eta senitartekoen parte-hartzea areagotzea dute helburu, eta eskolaren parte sentitzea eta komunitatea sare-

tzea. Can Maseko ikastetxe honen beste ezaugarrietako bat izaera komunitarioa baita: "Eskolak pertsona bakoitzaren ongizatea zaintzen, bermatzen eta laguntzen badu, uste dugu jakintzari eta harremanei bidea irekitzen diegula. Haurrak ondo egongo dira eskolan, euren familiak eta gainerako helduak ere eskolan ondo badaude".



## El Martinet eta gero...

Norbaitek Can Mas auzo zahar grisean El Martinet eskola bizia uharte bat dela pentsa dezakeen bezalaxe, eskola hau Kataluniako sare publikoan oasi bat dela pentsa dezake beste norbaitek. Baina eskolak auzoan ditu sustraiak, eta El Martinetekoaren antzeko pedagogia aurrerazaleak ez dira horren salbuespenezkoak Katalunian. Gobernuko Hezkuntza Departamentuak zentro berriak sortzeko garaiari irakasle taldearen hezkuntza-proiektuen programa-autonomia balioetsi izan aukera ugari eman zizkien ibilbide luzeko irakasleei, sare publikoaren barruan bestelako metodo pedagogikoak baliatzeko. Adibidez, Ripolleten bada filosofia bertsuko beste eskola bat: Els Pinetons, duela lau urte Hik Hasik bisitaturikoa, hain zuzen ere.

El Martineteko ikasleek, 12 urte bitartean testuliburu, ikasmahai, arbel eta azterketarik gabe ikasi ostean, institutura joan behar dute, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egitera. 2004-2005 ikasturtean ireki zituen lehenengoz ateak, eta dagoeneko hiru promozio atera dira ikastetxe honetatik, inguruko hainbat institututara. Hezkuntza-eredu honetatik atera eta ikasmahaietan arbelera begira egotera egokitu ote diren galdetu diegunean, oro har hiru promozioetako ikasleei buruz institutuetatik jaso dutena oso baikorra izan dela azaldu du Romerak: "Haurrek egiteko, ikasteko eta konpromisoak hartzeko gogo berezia erakutsi dutela esan digute. Gainera, El Martinetetik eta antzeko eredu pedagogikoak lantzetik doazen ikasleek bultzaturik, DBHn ere aldaketa eta berrikuntza beharrezko ikusten duten gero eta irakasle gehiago ari gara ikusten inguruetan, zorionez".

# karmele perez



## ELKARRIZKETA

Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKo doktorea

“Irakasle batek ezingo du eskola aldatu, baina aldatu ahal izango du bere ikasleek ikasteko modua; irakaslearen esku gauza asko daude”





**Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan Huheziko Miker iker-taldearekin ahozko hizkuntzaren didaktikaren gainean eginiko hiru urteko prestakuntza-prozesuan hartu zuen parte Karmele Perez Lizarralde irakasleak, unibertsitateko kide gisa. Prozesu hura zerbait berezia izan zela sumatu zuten bizi izan zutenek, eta Perez Lizarraldek doktorego tesian jaso nahi izan zituen prozesu haren aztarnak, fokua ahozkoaren didaktikan, etengabeko prestakuntzan eta unibertsitatearen eta eskolaren arteko harremanean jarriarik, besteak beste.**

***Irakasleen prestakuntza ahozko hizkuntzaren lanketa eskolan sustatzeko. Praktika gogoetatsuan oinarritutako prozesu baten azterketa izeneko doktore tesia aurkeztu berri duzu. Zein izan da zure ikerketaren abiapuntua?***

Abiapuntua ikastetxe batean egindako prestakuntza-prozesu bat izan da. Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan hiru ikasturtean zehar lanean arituginen eskolako eta unibertsitateko irakasleok ahozko hizkuntzaren didaktikaren gainean. Hori zen objektua. Prestakuntza-ereduari ere bereziki erreparatu genion, prestakuntzako programa berritzailea egin nahian, irakasleen praktikan eta gogoetan oinarritua. Tesi-lanaren helburua izan da programa horren eragina aztertzea eta ulertzea. Hau tesi kualitatibo bat da, helburua ulermena areagotzea da. Nik garai hartan sumatzen nuen eskolan zerbait berezia gertatzen ari zela, prozesua oso interesgarria eta intentsoa izan zen, eta neurri batean, han egon ginen guztioi interesatzen zitzaigun jakitea zeintzuk izan ziren gertatzen ari zenaren ardatzak.

Prestakuntza-prozesu hori Huheziko Miker iker-taldeak egin zuen, hizkuntzaren didaktikan lan egiten duena, idatzizkoan eta ahozkoan. 2006an Mikerreko talde bat Kurtzebarrira joan ginen ahozkoaren didaktikaren prozesu esperimental batekin. Proiektu horren helburua, hasiera-hasieratik, prestakuntza eta ikerketa aldi berean egitea zen, prestakuntza-proiektua diseinatzeaz gain, diseinatu zen, baita ere, ikerketa-proiektua, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin. Aldi berean arituginen irakasleekin prestakuntzan eta interesgarri ikusten ziren alderdien prestakuntzan.

***Helburu jakinen bat bazenuen tesia egiten hasi zinenen?***

Ikerketaren ondoren planteatu nuen tesia. Prestakuntza hau 2006tik 2009ra arteko ikasturteetan gauzatu zen, hiru ikasturtez jarraian egin zen. 2011n hasi nintzen ni tesia egiten. Jakin nahi izan dut egindako prestakuntza-ereduaren eragina nolakoa izan den

eta zertan ikusten den, eta horretarako bi helburu nagusi proposatu ditut. Batetik, ea ahozko hizkuntzaren didaktikaz emandako prestakuntza antzematen ote den eta nola antzematen den. Eta, bestetik, ea erabili dugun prestakuntza-metodologiak laguntzen ote duen sustatzen praktika gogoetatsua eta prestakuntza indibiduala zein kolektiboa. Guretzat erabakigarria zen ikustea prestakuntza indibidualaz gain kolektiboa ere nabarmentzen ote den. Prestakuntzaren eraginaren aztarnak bilatu ditut sei irakasleekin egindako autokonfrontazio-elkarrizketetan. Sei elkarrizketa horietan saiatu naiz ikusten ea ahozkoan garapenik gertatzen den, eta metodologiak berak nola eragiten duen.

***Zeintzuk dira aztertu duzun prestakuntza-programa honen berezitasunak edo interesguneak? Aztertu duzun prestakuntza programak zer alderdi esangurats/berri dakar ahozkoaren didaktikarako?***

Batetik, programa malgua eta irekia izan dela, alegia, hasierako diagnostikoak hasierako jarraibideak eman zizkigun, baina arian-arian irakasleek proposatutako irizpideetara egokitzen joan da. Hori prestakuntza-programaren berezitasunei dagokienez, oso inportantea da.

Ahozkoaren didaktikari dagokionez, Kurtzebarri Eskolan aurretik jorratua zuten generoaren lanketa eta sekuentzia didaktikoen diseinua idatzizko hizkuntzaren eremuan. Horri ahozko berriazko objektuen lanketa erantsi zaio. Berezi adierazgarria izan da elkarrekintzari eman zaion garrantzia eta objektu bikoitzaren ideia, alegia, hizkuntza eta arloko edukia aldi berean diseinatzeko, lantzeko eta ebaluatzeko konpromisoa. Horien guztien diseinuak, gelaratzeak eta gelaratutakoaren azterketak irakasleak eraman ditu ahozkoaren eremuan konpromiso garrantzitsuak hartzera, ziklo bakoitzean bereak, eta konpromiso horiek eragina izan dute bai irakasleen esku-hartzean eta baita, horren ondorioz, ikasleek hitz

# karmele perez

E

**“Asko konplexutu  
zaigu mundua, eta  
irakasleok erantzukizun  
oso handia daukagu: ez  
da bakarrik beharturik  
gaudela egokitzera  
mundura, baizik eta  
beharturik gaude gure  
ikasleak mundura  
egokitzera, gure  
erantzukizuna bikoitza  
da”**

egiteko izan dituzten aukeretan.

## **Etengabeko prestakuntza da zure tesiarene ikerlerroetako bat. Mundu globalizatu eta gizarte aldakor honetan zer nolako garrantzia dauka irakasleak etengabe prestatzeak?**

Mundua azkar samar aldatzen da gaur egun. Garai batean abiadura ez zen hain handia eta, bazirudien, pertsona bat prestatzen zela, ikasketa batzuk egiten zituela eta hasierako prestakuntza horrekin bizitza osorako prestatuta zegoela; gaur egun ikusten dugu ezetz. Mundua asko handitu zaigu: dagoeneko ez gara Euskal Herrian bakarrik bizi, Euskal Herrian eta mundu globalizatu batean bizi gara, eta areagotu egin da etengabeko prestakuntzaren garrantzia. Prestakuntza hori eskubide eta behar bihurtzeraino. Hainbat arrazoi aurki ditzakegu horretarako: ezagutzak eta teknologiak etengabe garatzen ari direla; munduko arazoek eta horietarako irtenbideek guztiongan eragiten dutela eta horretarako estrategia berriak behar ditugula; lan mundua gero eta zorrotzagoa dela eta edozein lanbide-tako eginkizunek gero eta eskakizun maila altuagoa eta egokituagoa eskatzen dutela; espezializatuak izan behar dugu baina era berean denetatik jakin behar dugula... Asko konplexutu zaigu mundua, beraz, gure bizimodua eta noski gure lanbide guztiak, eta irakasleena, noski ez da hortik kanpo geratu, are gehiago, irakasleok horrez gain erantzukizun oso handia daukagu. Ez da bakarrik beharturik gaudela egokitzera mundura, baizik eta beharturik gaude gure ikasleak mundura egokitzera, irakaslearen erantzukizuna bikoitza da. Ez dugu soilik obligazioa, konpromisoa hartu behar dugu. Etengabeko prestakuntza eskubide baino gehiago gaur egun obligazio bat da.

Makina bat premia ditu aurrean gaur egun irakasleak, eta premia horiei erantzuteko, prestakuntza etengabeko prozesu bihurtu da, prozesu mailakatu eta konplexua, denbora-mugarik ez duena eta lan-bizitzan zehar garatuz eta osatuz joango dena irakaslearen eza-

gutzak eta praktikak berritzeko, gaurkotzeko eta gizartearen aldaketetara egokitzeko. Etengabeko prestakuntza profesionalizazioa garatzeko bitarteko gisa ere ikusten dugu, eta norbere praktikak berritzeko ere bai, bestela beti gauza bera egingo genuke, eta ezin dugu beti gauza bera egin; etortzen zaizkigun haurrak beti dira haurrak baina beti dira desberdinak: gaur eguneko haurrek eta duela hamar urteko haurrek eta duela hogeita urteko haurrek ez dauzkate inkiertate berak, ez ezagutza berak ez gaitasun berberak. Mundua asko aldatu da, eta duela 30 urtetik lanean ari diren irakasleak dauzkagu, eta gaur eguneko gelak ez dauka zerikusirik duela 30 urte hasi zireneko gelaren ezaugarriekin. Hori errealitate bat da. Lanbidean profesionalizazio maila areagotzeko, arriskuak hartzen dituzten eta sisteman, testuetan edo programe-tan babesten ez diren irakasleak behar ditugu. Ez badaude konforme, saiatu behar dugu gauzak beste era batera egiten, sistemak esaten duena esaten duela. Badakit zaila dela. Baina gela baten barruan gauza asko egin daitezke, sistemak esaten duena esaten duela, irakasleak argi baldin badauka, irizpidea baldin badauka... Irakasle batek ezingo du eskola aldatu, baina aldatu ahal izango du bere ikasleek ikasteko modua; irakaslearen esku gauza asko dade. Badakigu egoera konplexua dela eta sistemak makina bat zailtasun jartzen dizkigula bidean. Horien aurrean, baina, irakasleak izan behar du jakintsua, asmatzailea, teknologian trebea, testuingurua ezagutu eta gizarteko erronkak ulertzen eta kontuan hartzen dituen pertsona, eta gogoetatsua ere izan behar du, alegia, gai izan behar du bere praktiken eta emaitzen azterketa kritikoa egiteko eta praktika horietan eragiteko. Asko da, badakit asko dela eta dena ezin dela aldi berean egin. Bizitza osoko prestakuntza daukagu horietan poliki-poliki eragiten joateko. Etengabeko prestakuntzak bide hori egiten lagundu behar dio irakasleari, eta premia horren eta bere profilarren



kontzientzia hartzen lagundu behar dio. Etengabeko prestakuntza jarrera eta borondate kontua da gehien bat.

**Irakaslearen etengabeko prestakuntzan zer garrantzia dauka praktika gogoetatsuak? Zer da zehazki, praktika gogoetatsua? Zertan da bestelako formazio-eredu batzuekiko desberdina?**

Gaur egun ezin dugu irakasleen prestakuntza ulertu gogoetaren bitartekaritza gabe edo gogoeta sustatu gabe. Ikuspegi honetan, defendatzen da ekin-tza dela toki pribilegiatua ikaskuntza profesionalerako, eta irakaslearen praktika dela prestakuntzaren oinarria.

Irakasleen prestakuntzak irakaslearen interes eta egoera arazotsuei erantzun behar die. Baina arazo horiek ez dira generikoak, irakasle guztiek ez dituzte arazo eta kezka berberak, haien praktika ez delako beti testuinguru berean gertatzen eta erantzun berak ez die balioko beti irakasle guztiei, ezta ikasketxe bereko irakasleak izanda ere; zer esanik ez testuinguru sozial eta didaktiko ezberdinetan badaude. Beraz, prestakuntzak, eraginkorra izango bada, irakaslearen esperientzia kontuan hartu behar du, bera baita egoera horretan aditua; inork ez du bere gela ezagutzen irakasle horrek bezala, inork ez du haur horiek ezagutzen irakasle horrek bezala, inork ez du bere egiteko

modua ezagutzen irakasle horrek bezala, beraz, hortik abiatzen da prestakuntza: norbere praktikaren gogoeta horretatik. Prestakuntza abiatuko da praktika edo kezka erreal batetik, irakasleen arteko elkarrekintzarekin eta prestatzaileen esku-hartzeak gidatuta, prestatzailea gidatzailea baita, ez baita ki dena. Teoria etorriko da praktika horren gaineko gogoetatik, bai irakasleek beraiek eraikitzen duten teoria (txikiarekin), bai eta adituek egoera horien inguruan proposatzen duten teoria ere (T handiarekin). Irakasleen konpetentzia profesionala garatuko da praktikan oinarritutako teoria esanguratsua ezartzen bada eta teoria erabiltzen bada esperientzia praktikoen gainean gogoeta egin behar denean, alegia, teoria praktikaren eta irakaslearen behararen harira baldin badator eta irakasleak berak lotura hori egiten badu eta ezagutza horiei zentzua ematen badie. Horri deitzen zaio ikaskuntza edo ikuspuntu errealista. Paradigma errealista hori aldarrikatzen dugu prestakuntza eta praktika gogoetatsuz hitz egiten dugunean.

Prestakuntza-eredu honek beste bi eredu baztertzen ditu: lehenak ikaskuntza ezagutzen transmisioan oinarritzen du, pentsatuta ezagutza teorikoa ondoren praktikan aplikatzeko modukoa dela; bigarrenak ikaskuntza oina-

ritzen du praktikan edo esperientzia eta hutsegitean, pentsatuta praktikatu eta praktikatu ikasiko dela. Baina uste dugu hori ez dela nahikoa, ez bata eta ez bestea, eta ez dela eraginkorra norberaren praktika ulertzeko eta eraldatzeko. Horien aldean, prestakuntza errealista abiatzen da formatzen ari den irakasleak gelan gauzatutako praktikaren behaketatik—eguneroko baten bidez, adibidez—, inoiz ez ezagutza teoriko formaletik. Gu eskolara joan aurretik eguneroko bat egitea eskatzen dugu, eta irakasleek idazten dute gaiaren inguruan, adibidez ahozkoaren eremuan, bost egunetan zer egiten duten ahozkoa lantzeko. Hortik abiatzen dugu prestakuntza, inoiz ez ezagutza teoriko formaletik, abiapuntua inoiz ez da hitzaldi teoriko bat. Horren gainean gogoeta sistematikoa sustatzen da, ekin-tzaren eta gogoetaren arteko alternantzia —teoria lagun— eta eztabaidan eta esperientzia-trukean oinarrituta. Finean, dispositibo didaktikoa antolatuko dugu irakaslea eramateko bere prozesuaz kontzientzia hartzera. Prozesu horren lagungarri oso garrantzitsuak dira gure prestakuntza-ereduan irakasle bere praktikan grabatzea eta irakasleak bakarka eta taldean praktika horren gainean egiten duen auto-behaketaren edo autokonfrontazioa. Alegia, gure kasuan, gogoeta hiru planotan egin du-

# karmele perez

E

“**Prestakuntzak, eraginkorra izango bada, irakaslearen esperientzia kontuan hartu beharko du, bera baita egoera horretan aditua**

”

“**Ikasleak ikasi behar du, besteak beste, hitza nola hartu, nola hitz egin behar duen bere ikaskidearekin, zeintzuk diren erantzuteko modu egokiak, nola hartu aintzat besteak esan duena... baina, horretarako, irakasleak ikasleari hitz eman behar dio**

”

gu eskolan: bakarkako gogoeta oso garrantzitsua izan da, taldeko gogoeta ere bai eta klaustrokoa ere bai. Bakarka egindako lana garrantzitsua da, baina baita ere zikloka egindakoa ere. Eta azkenean eskolako proiektu bihurtzen da.

## **Nola? Nola inplikatzan da eskola oso bat ahozkoaren didaktikaren berrikuntzan?**

Irakasle guztiak hartu dute parte prestakuntza-prozesu honetan, eta guztiak ikusi dituzte aukerak, guztiak baitira hizkuntza irakasle. Goitik beherrako eta behetik gorako prozesuak eginda. Alegia, garrantzitsua da zuzendaritzak helburu argiak izatea eta jakitea helburu horien ilusioa pizten. Ikastetxeko proiektu moduan ulertzen dugu, eskolako kezka orokor baten lanketa- eta gogoeta-prozesu moduan. Hortaz, garrantzitsua da, era berean, irakasleek haien erronka eta proiektutzat hartzea, elkarlana sustatuko duen proiektu komuna izatea. Kurtzebarrin hori lortu zen. Horrek ez du esan nahi irakasle guztiak erritmo eta konpromiso berarekin arituko direnik, baina gutxienekoak bermatzen ditu. Eskola-proiektu bezala aurkeztu zen, ikastetxearen eraldaketa-proiektu moduan. Garrantzitsua da irakasleek euren proiektu bihurtu izana.

## **Etengabeko prestakuntza hori ahozko hizkuntza ikasi eta irakasteko prozesuen berrikuntzan aztertu duzu. Zergatik ahozko hizkuntza? Eskola ez ote da denbora luzean idatzizko hizkuntzaren irakasteaz arduratu?**

Hain zuzen ere, eskolak bereziki hartu du bere gain idatzizkoaren ardura eta ahozkoa senide pobre moduan hartu du. Gaur egun, baina, inork ez du zailantzan jartzen ahozkoa landu egin behar dela, idatzizkoa bezain aberatsa eta konplexua dela, bere berezitasunak eta arauak dituela eta horiek berariaz eta sistematikoki jorratu behar direla eskolan.

Kurtzebarri Eskola bezala, hainbat ikastetxe daude ahozkoarekiko kezka berezia dutenak. Ikusten dute ahoz-

gauzak egin egiten direla, baina emaitzak ez direla espero dituztenak, eta kezkatuta daude ikasleen ahozkoaren garapenaz. Eta kezka hori areagotu egiten da euskara bigarren hizkuntza moduan duen haur kopurua handiagoa den eremuetan. Gaur egun Euskal Herriko eskola guztiak elebidunak dira, gutxienez elebidunak.

## **Oro har, ikasleen ahozko euskararen erabileraren kalitateaz zer esan liteke?**

Irakasleak, oro har, kexu dira ikasleen ahozkoaren kalitateaz. Esango nuke lantzen denaren arabera dela. Oro har, ikasleek ez dute sistematikoki ahozkoa lantzen eta ez dituzte bereizten erregistroak edo testu-genero ezberdinen aurrean erabili beharreko baliabide ezberdinak, ezta ahozkoaren berariazko ezaugarriak ere. Eskolako irakasleak kontziente dira horretaz eta horrelako ahozkoaren formazioak hortik datoz. Ez da berariaz ahozkoa lantzen, nahiz eta aldeak dauden, adibidez, Haur Hezkuntzan irakasleak oso kontziente dira haurra hizkuntza ikasten ari dela eskolan, eta egiten dituen jarduerak baliatzen dituela haurrak hizkuntza ikasteko. Haur Hezkuntzako irakasleak kontziente dira hizkuntza irakasleak direla. Lehen Hezkuntzako irakasleek, LH1-2ko irakasleek, oro har, jarraitzen dute izaten, haurrak txikiak dira oraindik; are gehiago bigarren hizkuntzako haur asko dauden kasuetan. Baina gero, hori galdu egiten da. Eskola sortu zenez bere garaian haurrak alfabetizatze eta alfabetizatzea betidanik eta historikoki idatziarekin lotu izan denez, badirudi hizkuntzaren lanketa sistematikoa idatzizkoari eskaini zaiola, eta ahozkoa gelditu da senide pobre baztertua bezala.

## **Hezkuntza-sistemak bermatzen al du ahozko hizkuntzaren irakaskuntzaren praktika sistematikorik?**

Aukera ugari eskaintzen ditu, baina ez du lanketa eta praktika sistematikorik bermatzen. Aukera natural pila bat daude, baina horren kontzientzia hartu behar dugu, ez baitu lanketa sistematiko-

korik bermatzen berez. Paradoxiko jo dezakegu ahozkoak toki garrantzitsua izatea eskola-sistemaren bi muturretan: HHn eta LHko lehen urteetan, erabilera ez formala finkatzeko eta gelako komunikazioarekin harremanetan dauden erabilerak ezartzeko; eta unibertsitatean hitz-hartze publikoak behar dituen errekursoak eskuratzea ezinbestekoa da kazetari, abokatu, irakasle edo enpresariarentzat. Aitzitik, derigorrezko eskolaldi osoan behar du izan ahozkoak ikaskuntza-objektu espezifikoa, ikasleak joan daitezela deskubritzen nola erabili objektu hori komunikazio-egoera berrietan. Horretarako, eta esku-hartzeen proposamen sistematiko baten barruan, definitu eta argitu behar da zer ezaugarri dituen irakatsiko den ahozkoak eta zer hizkuntza-gaitasun lortu nahi den. Baina erreparatu badiegu programa eta material didaktikoei, ikusiko dugu bereziki erreparatu diotela idatzizkoaren garapenari, idatzizkoa lantzeko eta ebaluatzeko irizpideak eskaintzen dituztela. Ahozkoari askoz gutxiago erreparatu diote eta modu lausoagoan, eta irakasleen esku geratzen da hori nola gauzatu. Horren ondorioz, ahozko jarduerak sarri berariazko tailerren bidez egiten dira (antzerkia, irratia, ipuin-kontakteta...), eta sarri ahozko hori ez da ebaluatzen. Ez dira argi egoten ahozkoa zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak; izan ere, sistematikoki lantzen ez dena, nekez irits daiteke sistematikoki ebaluatu ahal izatera. Idatzizkoan egiten den bezala, ikaste-helburuak zehazten diren bezala, ahozkoan gauza bera egin behar da, eta askotan paraleloan, proiektu berak ahozko eta idatzizko helburuak izan baititzaie.

### **Ahozkoa sistematikoki ez lantze hau zer da, euskararen didaktikari dagokion kontua?**

Nik uste dut orokorra dela. Oro har, hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak horrela joan dira. Gainera, autoreak irakurtzen ditugunean ez dira euskaldunak bakarrik, eta irizpide hauek orokorrak dira, eskolak horrela



funtzionatu izan baitu. Hasieratik alfabetizazioarekin lotu zen irizpide bat da. Gogoratu behar dugu garai batean haurrak 6 urterekin eskolaratzen zirela, eta euren ama hizkuntza ordurako erabilerara informalerako eskuratua zeukaten, eta eskolan alfabetizazio formala egiten zen. Gure eremuan, haurrak 2 urterekin sistematikoki eskolan daude, eta kasu askotan lehenago. Eskolara iristen direnean hizkuntza oraindik eskuratu gabe daukate eta, gainera, egoera eleaniztun horri erreparatu behar diogu, beraz, egoera konplexua da eta aldagai askori erreparatu behar diogu aldi berean.

### **Zeintzuk dira ahozkoaren didaktikaren berrikuntzan inplikaturako alderdi nagusiak?**

Lehenik eta behin, hizkuntza ulertzeko ikuspegia garrantzitsua da: gu hizkuntza ulertzeko ikuspegi zehatz batean kokatzen gara, alegia, ikuspegi sozio-diskurtsiboan. Ikuspegi hori jarduera sozialean eta hizkuntza-ekintzan oinarritzen da eta hizkuntzaren funtzio komunikatiboa aldarrikatzen du. Ikus-

pegi honetan, testua hartzen dugu oinarritzeko unitatetzat, eta horren baitan, hiru ikuspuntu osagarri artikulatzen ditugu. Lehenik, testuak generoen ezaugarrien arabera landuko ditugu (argudioa, kontakteta...). Bigarrenik, uste dugu genero horiek menderatzea oso lotuta dagoela eskolako beste diziplina batzuetan ikasleak lortuko duen arrakastarekin, genero horiek ezinbesteko izango baitzaizkio matematika, zientziak, historia, literatura, etab. ikasteko eta matematikariak, historialariak... bezala hitz egiteko. Alegia, helburu bikoitza edo hizkuntza eta edukia aldi berean diseinatzeko eta lantzeko beharra aldarrikatzen dugu. Eta, azkenik, elkarrekintza didaktikoaren garrantzia azpimarratu nahi dugu, bai ikasleek eskuratu beharreko objektu gisa eta bai irakaslearen estrategia didaktiko gisa. Gela elkarrekintzaren eremua da berez, etengabe daude elkarriketak, etengabe galdekatzen ditugu, elkarrekintza bidez identifikatu ditzake irakasleak ikasleek dituzten oztopoak, lagunduko dio oztopo horiek gainditzen. Ikasleak ikasi behar du, besteak beste, hitza hartu, nola hitz egin behar duen bere ikaskidearekin, zeintzuk diren erantzuteko modu egokiak, nola hartu aintzat besteak esan duena, nola entzun besteak esaten duena... elkarrekintza bera objektua da, elkarrekintza aritzen ikasi behar dugu. Baina, horretarako, irakasleak ikasleari hitz eman behar dio. Baina irakasle asko ez dira oharitzen elkarrekintza bera diseina daitekeela ikasleen ahozko sistematikoki sustatzeko eta lantzeko, horretarako objektu eta estrategia zehatzak definituta.

### **Esaten ari zaren horretan guztian pedagogia eredu batzuek ez dute balio, irakasleak ikasleei hitza eman behar baitie.**

Honek guztiak eskatzen du espazioak zabaldu behar direla, ikasleek hitza hartu behar dutela eskolan. Elkarrekintza modu sistematikoan diseinatu behar da, irakasleak diseinatu ahal du berak nola jokatu ahal duen ikasle guztiei hitza emateko, ikasleen hitzartzeak

**“Irakaslearen ereduaz hausnartzera garamatza ahozkoaren lanketak: Nola hitz egiten dut nik? Nolako eredu linguistikoa daukat? Nola ematen dut hitza, uzten diet? Zer estrategia erabiltzen ditut aurre ezagutza bideratzeko? Guztiei hitza ematen diet?”**

kudeatzeko... Oraindik ere, irakasle askok ikasleei zerbait galdetu eta erantzun ostean, “orain isildu” esaten dio, edo erantzun itxi bateko galderak egiten ditu, bai/ez edo zuria edo beltza... Gero ezin dugu esan ikasleen diskurtsoa sinplea denik. Aztertu behar dugu irakasleok zer egiten dugun ikasleen erantzuna era batekoa edo bestekoa izan dadin, eta horren arabera hobetu ahal izango du irakasleak bere praktika. Irakaslearen ereduaz hausnartzera garamatza ahozkoaren lanketak, norbere buruaz duzun irudia zalantzan jartzera zaramatza: Nola hitz egiten dut nik? Nolako eredu linguistikoa daukat? Nola ematen dut hitza, uzten diet? Zer estrategia erabiltzen ditut aurre ezagutza bideratzeko? Guztiei hitza ematen diet? Guztiengan erreparatzen dut? Nola tratatzen ditut ikasleak? Zeintzuk dira nire estrategia enpatikoak? Oso konplexua da, delikatuia eta errespetu handiz egin beharrekoa. Prozesu hauek kontzientzia hartzeko dira, eraldaketa puntuak txertatzen joateko.

### **Aztertutako elkarlan horren barruan, nola bihurtu da irakaslea bera bere lanaren ikerlari eta azterlari?**

Irakaslea bere lanaren azterketatik abiatua da. Prestakuntzaren hasieran idatzi behar izan du egunerokoa ahozkoa lantzeko zeregiten duen adierazteko. Horren ondoren egindako guztia hasierako egoera hori osatzera eta aberastera etorriko da.

Egia da ezin dela lan egin irakasle guztiakin intentsitate berberarekin. Irakasle guztiak ez dute haien burua grabatu nahi eta nahi balute ere ezingo gineteke irakasle guztiakin banaka bildu. Hortaz, talde naturalak aprobetxatu: zikloka. Ziklokideen artean diseinatu dira saioak eta ziklo bakoitzeko bi irakasleak grabatu dute haien burua eta egin dute bakarkako auto-behaketa; baina ondoren ziklokide guztiak bildu dira eta izan dute aukera grabatutako irakaslearen praktika aztertzeko eta norbere praktikarekin kontrastatzeko. Irakasle guztiak bihurtzen dira haien prozesuaren protagonista, inork ez baitie

esaten nola egin behar duten, haiiek hartu behar dituzte erabakiak eta egin behar dute prozesua, bakoitzak berea.

Nik aztertu ditut sei irakaslerekin egindako auto-behaketa elkarrizketetan irakasleek esandakoak, eta horietan ikusten da ezagutzak mugitu egin direla eta bereganatu dutela gelako ahozkoaren konplexutasuna. Ahozko hizkuntzaren didaktikaren irizpideak barneratu dituzte, ahozkoa lantzeko intenzionalitatearen garrantziaz jabetu dira, ahozkoa curriculumez kanpoko tailerren mugetatik atera dute eta curriculumaren eta eguneroko dinamika berruaren txertatu dute elkarrekin-tzarekin eta arloarekin (matematikarekin) uztartuta.

### **Autobehaketa aipatzen duzu, bideoz grabatzea... ez gaude, ordea, geure burua bideoz grabatu eta behatzera ohituta...**

Bideograbazioak egiten ditugu, ikaragarriko potentzialtasuna daukalako. Baina beldurra diogu geure burua bideoz grabatzeari, beldurra baitiogu norbere burua behatzeari... Gure ustez bideoformazioa landu egin behar da, aukera handia ematen du, bestela ikusiko ez genituen gauza asko ikusteko. Baditu bi alderdi bideoformazioak: batetik, erabili ahal ditugu beste batzuen grabazioak, eta hori oso baliagarria da. Beste batek egindako praktikatik kontrastatu ahal dugu gurea. Eta sakondu nahi duenak bere burua graba dezake: bere burua grabatzen duenak bere burua deskubritzen du, gustatzen zaizkion eta aldatuko lituzkeen gauzak ikusten ditu. Gure kontsigna da aukerak ikustea, honelako lanketa bat ezin da kulpabilizaziotik egin. Ez da ebaluatzen praktika, praktika aztertu egiten da. Nahi duguna da bakoitzak hobeto ulertzea egiten duena, eta ikus dezala egiten duen horrek zer aukera ematen dizkion hobetzeko. Baina errespetu handiz eta eskuzabaltasunez egin beharreko ariketa da, bai nork bere buruarekiko eta kanpotik datorrenak irakaslearekiko ere.

Etorkizunari begira, hemen Huhezín, hasierako prestakuntzan, irakasle-

gaiekin hasi dugun prozesu bat da, oso gratifikantea. Luxu bat da, gure ikasle-ek euren intimitate horretan sartzen uzten digute eta autokonfrontazioak egiten dituzte gurekin bideoaren aurrean. Eta hori pribilegio bat da.

Esperimentazioa oso garrantzitsua da. Eraldatu nahi baldin bada, esperimentatu egin behar da, arriskua hartu behar da.

### **Ahozkoaren didaktika eta prestakuntza gogoetatsuz gain, tesiaren hirugarren interesgune bat unibertsitatearen eta eskolaren arteko elkarlanak sortzen du, Gipuzkoako Kurtzebarri Eskolaren eta Huhezi Fakultateko (MU) Miker ikertaldearen denbora luzeko elkarlanak, hain zuzen ere. Zer nolako elkarlana izan da?**

Elkarlan sendoa izan da, bereziki bi arrazoirengatik: batetik, arnas luzekoa izan delako, hiru ikasturte eta saio asko izan ditugulako eta horrek asko eragin du harremanetan; eta, bestetik, hainbat irakaslek haien gelako atea zabaltu dizkigutelako, ordu asko grabatu ditugulako eta irakasleek, bakarka zein taldeka, haien praktika aztertzeke ausardia eta eskuzabaltasuna izan dutelako; ez da erraza izan, baina inongo momentutan irakasleek ez dute zalantzan jarri prozesu hau egin egin behar zela. Elkarlana sendoa izan da, bai eskolako irakasleen artean, bai eta eskola eta unibertsitatearen artean ere, eta uste dut denoi asko ikasteko balio izan digula.

### **Prestakuntza-prozesu hau unibertsitatearen eta eskolaren arteko harreman-eredu izan da.**

Niri ezinbestekoa iruditzen zait elkarlana. Eskolako irakasleen lankidetzaz lortzea oso garrantzitsua da. Eskolako irakaslea unibertsitateko ikerketataldeko kidea izatea litzateke hurrengo pauso on bat. Elkarlana indartu behar dugu eskolaren eta unibertsitatearen artean.

Guk hemen hasierako prestakuntzan egiten dugun lan, irakasle gaiekin. Irakaslegai horiei zer kontatuko diegu hizkuntzaren didaktikaz, autoreek esa-

ten dutena? Autoreek esaten dutena ez da nahiko inondik inora, gela aurkeztu behar diegu, material errealek eduki behar ditugu, guk grabazioak erabiltzen ditugu, prestakuntzan egindako ikerketak ematen digu aukera grabazioak edukitzeko, irakasleen testigantzak dauzkagu. Grabatu ditugun Kurtzebarri eskolako irakasleei gure gelara etortzeko eskatzen diegu, autokonfrontazioaz eta haien praktikaz hitz egitera eta beti etortzen dira; adituak beraiak dira. Guk eskola bertatik bertara ezagutu behar dugu, esaten dugun horren gainean ikasleen aurrean autoritatea izan dezagun.

### **Zein izan dira zure tesiaren ondorio nagusiak?**

Egindako prestakuntzaren azterketa ikusi egiten direla. Ikusi egiten dira bai ahozkoaren didaktikaren alderdiak, bere konplexutasunean agertzen dira, aldagai askorekin. Irakasleak teorizatzen ari dira, ikusten da hainbat alderdiz jabetu direla eta kontziente direla egindako ibilbideaz, ibilbide hori agertu egiten da. Nahiz eta elkarrizketa indibidualak aztertu, kolektiboaren azterketa agertzen dira, ikusi egiten da egindako prozesuaren isla.

### **Kurtzebarriko prozesu horretatik zer erabil liteke beste eskola batzuetan?**

Ahozko didaktikaren printzipioak berdinak dira guztientzat. Erritmoak eta egiteko moduak egokitu egingo ditugu eskola bakoitzaren behar eta interesetara. Transferigarria da. Joaten gara beste ikastetxe batera, eta gauzatzen ditugu prozesuak.

### **Herri elebidunak dira Euskal Herriko guztiak, horrek ahozko hizkuntzaren didaktikan badu eraginik?**

Zalantzarik gabe herri eleaniztuna izateak eragina dauka didaktikan. Horrek irakaslea behartzen du hezkuntza elebidunaren ezaugarrietara egokitzen eta konturatzen ikasleen ezagutza eta erabilera mailak ezberdinak direla... haur askoren kasuan bigarren hizkuntza moduan ari gara irakasten, eta kon-



tziente behar dugu izan egiten ari garen ariketak zer zailtasun maila daukan. Esate baterako, buruketa matematiko batean zer zailtasun linguistiko daukan, batzuetan ez baitugu ezer birformulatzen, eta buruketa matematikobatek ezaugarri linguistiko oso konplexuak izan ditzake, eta ikasle asko galdu daitezke formulazioan.

### **Aretxabaleta baino eremu erdaldunagoetan ere balio dezake programak?**

Baietz esango nuke. Izan ere, bakoitzaren errealitateetik abiatzen garen neurrian, irakasle bakoitza bere praktikari begira jartzen duen neurrian eta praktika horren gaineko gogoeta sustatzeko pausoak eman nahi ditugun neurrian, bakoitzak bere prozesua egin behar du eta bakoitzak erabakitzen du nora iritsi nahi duen. Gure lana bidelagun izatea da, bidea egiten laguntzea da, une bakoitzean aurrera egiteko aukerak proposatzea...



# LOMCEri ez, Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki

Norbere indarguneen eta ahulguneen gaineko gogoeta egiteko galdetegia

## Nola egiten diete irakasleek eta eskolek aurre, egunero-egunero, LOMCEren ereduari?

LOMCEri aurre egin eta Euskal Herriko hezkuntza propioa eraikitzeko “Gure Gida” izeneko txostena argitaratu zuten 2014ko udaberrian hainbat hezkuntza eragilek: ELAk, LABek, EILASEk, Ikasle Abertzaleak, Ikastolen Elkarteak, UEUK eta Hik Hasik. Bertan, ildo pedagogikoa eta arlo curricularra zehazteaz gainera, Espainiako hezkuntza erreformak dakartzan ondorioak ekiditeko edota murrizteko hainbat proposamen egiten dira. Euskal Herriko hezkuntza propioaren eredia eraikitzen eta indartzen jarraitze aldera, justizia sozialean oinarritutako eredu pedagogiko inklusiboa eta oinarrizko konpententziak ardatz dituen euskal curriculuma proposatzen dira.

Gida argitaratu berrian, LOMCEri aurre egiteko proposatzen ziren neurrien artean “desobedientzia” hitzak, hau da, “estatuak inposaturiko kanpo ebaluaziorik ez egiteko” irizpideak hartu zuen protagonismorik handiena. Eta, hein batean, ingurune askotan eztabaida neurri horren gaineko go-



goeta egitera murriztu zen. Gidan, baina, irakasleek zein ikastetxeek euren eguneroko jardunean txerta ditzaketen —eta txertatzen dituzten— hamaika ekinbide jorratzea ere proposatzen da. Labur bada ere, Euskal Herriko ikastetxeetan egunero aplikatzen diren praktika on horiek zerrendatu nahi genituzte hurrengo lefroetan. Nork bere lanaz hausnar dezan, eta ikus dezan eguneroko prakti-

karekin nola ari den sustatzen hezkuntza-eredu berdinazale, parekide eta euskaldun bat, eta era berean, eguneroko praktikan LOMCEren hainbat alderdiri aurre egiten. Azken batean, galdetegi hau irakasle eta eskola bakoitzari bere jardunaren gaineko gogoeta egin, eta norbere eskolaren indargunez nahiz ahulgunez ohartzeko balioko dion erreminta izatea nahi genuke.



**Zure eskola-komunitateak —eta zuk, irakasle— aplikatzen al ditu, aplikatzeko bidean lanean ari al da, ala ez ditu aplikatzen LOMCE-k eraginik izan ez dezan “Gure Gidak” proposaten dituen neurriok?**

**Ildo pedagogiko berritzailea**

\* Gure eskolan gizarteko desabantaila eta desoreka sozial, ekonomiko, pertsonal, kolektiboak... konpentsatzen saiatzen gara, haur eta gazte orori aukera berdina izateko baldintzak sortuz.

BAI	Bidean	EZ
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

\* Ikasle guztien ikaskuntza prozesua hobetzeko, euren artean egiten duten praktikaz sistematikoki hausnartzen dugu, egunerokotasuneko eta gertuko jendarteari erantzun egokia emanaz eta etengabeko berrikuntza eraikiz.

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

\* Ikasle bakoitzak bere gaitasun, potentzialtasun eta aukerak ahal bezain-beste gara dituzan beharrek bitartekoak jartzen ditugu.

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

\* Gure ikastetxea jakintzaren sorkuntzarako eta hezkuntza-praktikak hobetzeko eragile da.

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

\* Mundu ikuskera eta sinesmen ezberdinen lanketa, giza-balioen hezkuntza aniztasuna, ezberdintasunetikiko errespetua, kritikotasuna, elkartasuna, justizia soziala, inguruarekiko interdependentsia eta errespetua, jasangarritasuna, etab. oinarri izango dituen hezkuntza bultzatzen dugu.

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

**Inklusibotasuna, ardatz**

\* Inklusibotasuna da gure eskolaren ardatz.

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

\* Hezkuntza langileek, ikasleek, familiarek eta/edo haien ordezkari legalek, jendarte-eragileek, den-denok hartzen dugu parte eskolan, denen artean osatzen dugu komunitatea eta sarea.

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

**Herria, subjektu hezitzailea**

\* Herritarrak eta herria subjektu gisa irudikatzen ditugu eta horrexegatik herri eta auzoak haurren ikaskuntza prozesuan txertatzen saiatzen gara.

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

\* Herriko kulturaren, hizkuntzaren eta bertako identitatearen garapenaren alde egiten dugu.

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

**Oinarrizko konpetentziak, erreferente nagusi**

\* Konpetentzien garapenari zuzendutako marko metodologikoa dugu, eta ezagutza modu eraginkorrean sortu eta erabiltzeko aukera ematen duen marko metodologikoan sormena eta parte-hartzea ikaskuntzarako oinarrizko gako bihurtzen ditugu.

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

\* Sormena, eszenatoki anitzak aurreikusi eta egoera berriei aurre egiten ikastearekin lotzen saiatzen gara, alternatiba eta ondorio ezberdinak baloratuz eta erantzun ezberdinak sortuz.

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

\* Elkarrekin, elkar-lanean, elkarriketan eta eztabaida kritikoa oinarrituz ikasten dugu.

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

### **Ebaluazio aurrerakoia**

\* Ebaluazio modu aurreratuak erabiltzen ditugu; ebaluaziorako egoera errealak proposatuz; ezagutza anitzen erabilera ahalbidentuz; ebaluazioa ikas-te prozesuko hainbat unetan kokatuz; aurre ezagutzak, esperientziak, jarrerak eta ohituren identifikazioak bermatuz; auto-erregulazioa sustatuz; etab.

**BAI**

**Bidean**

**EZ**

### **Euskal Herriko errealitatea kontuan hartu**

\* Euskal Herriko errealitatea lantzen dugu bere dimentsio ezberdinetan: linguistikoa, kulturala, soziala, historikoa, geografikoa, politikoa...

\* Tokian tokiko curriculum edota hezkuntza proiektuak garatzen ditugu.

\* Gure ikastetxean sortzen diren curriculumak, hezkuntza proiektuak, material pedagogikoak, etab. denen eskura jarri eta elkarbanatu egiten ditugu.

### **Parte-hartzea sustatu**

\* Ikastetxe bakoitzean kide guztien (zuzendaritza, hezkuntza-langile, familia, ikasle eta herritar) parte-hartzea eta erabakitze ahalmena bermatu eta erabaki guztiak modu parte-hartzaile eta demokratikoan hartzeri konprometitzen gara.

\* Gure ikastetxean hezkuntza komunitatea osatzen duten estamentu guztien parte-hartzea eta erabakitze ahalmena guztien esku dago. Hau bermatzeko ikastetxeetako organo nagusia demokratikoki antolatuta dago.

\* Ikastetxeetan batzarrak sustatzen ditugu.

\* Herri edo auzoetako hezkuntza mahai edo batzordeetan parte hartzen dugu.

### **Euskara, zutabe**

\* Eskolan euskara hizkuntza-ardatza izateko konpromisoa hartua dugu eta horretarako bitartekoak jarriak, bai ikasgelan eta baita eskolako gainerako eremu guztietan ere.

\* Herriko gainerako erakunde eta eragileekin ikastetxeko eremutik hara-tago zabalduko den hizkuntza proiektu osatua aplikatzen dugu, ikasleak euskalduntzeaz gain, beste hizkuntza batzuk ikasteko ateak zabalduz.

### **Parekidetasuna bermatu**

\* Gure eskolako programazioak (helburuak, edukiak, metodologia, anto-laketa, materialak, harremanak, hizkuntza, espazioak, ebaluazioa) modu hezkidetzailan diseinatzen eta garatzen ditugu.



# 0-3. Hezitzaileen formazioa

Inma Ajona eta Edurne Lekunberri, Egunsenti Iruñeko udal haur-eskola

## Haur-eskola, ikerketarako laborategi handi bat

Reggio Emiliako esperientziak liluratu egin zituelako hasi ziren Egunsenti Iruñeko udal haur-eskolako jardunean aldaketak txertatzen. Proiektu pilotu bat jarri zuten martxan orain dela urte batzuk. Gela batekin hasi ziren, baina pixkanaka eskola osora zabaldu zuten esperientzia eta gainontzeko haur-eskolentzat ere erreferente bilakatu zen. “Reggio Emiliako eredu gurean txertatzea ez da egun batetik besterako kontua izan, urteetako ahaleginaren emaitza baizik. Gainera, gure xedea ez da Reggio Emiliako esperientzia Iruñean kopiatzea, hango praktikatik ideia batzuk hartu eta horiek Egunsentiko jardunera egokitzea baizik. Reggiok katigatu egin gintuen, eta gutxika proiektua eskola osoan aurrera eramatea lortu dugu”, hala kontatu zuten Inma Ajona haur-eskolako zuzendariak eta Edurne Lekunberri hezitzaileak 0-3 zikloko profesionaleri zuzendariko otsaileko formazio-saioan. Eskolako funtzionamendua, antolaketa eta lanmodua azaltzeaz gainera, haurren heziketa errespetuzkoa izan dadin kontuan izaten dituzten hainbat gako ere eman zituzten.



Edurne Lekunberri eta Inma Ajona, Iruñeko Egunsenti haur-eskolako hezitzailea eta zuzendaria, hurrenez hurren.

Haurrek bata bestearekin harremanean ikasten dutela dioen premisatik abiatzen dira Egunsentin, eta Reggio Emilian bezala, umeez egiteko, esperimentatzeko eta sentitzeko aukera izan dezaten proposamenak prestatzen dituzte hezitzaileek. Horrez gain, dokumentazioari ere berebiziko garrantzia ematen diote, egiten duten guztiaren arrastoak uzten dituzte, argazkiak ateraz, bideoarekin grabatuz, idatziz jasoz... Eta hala euren eguneko jardunaren gaineko hausnarketa egiten dute: zerk fun-

tzionatu du? zerk ez? zer aldatu behar da? Gainera, Reggio Emilian egin ohi duten gisara, Egunsentin ere, bikote pedagogikoka egiten dute lan, hau da, gela guztietan bi hezitzaile daude eta biak arduratzen dira haur guztiez, horrek hainbat abantaila ematen dizkiela uste baitute. Haurraren begirunezko jarrera izatea eta haren erritmoak errespetatzea ere oso kontuan izaten dute Egunsentin; Reggio Emiliako eredu gogoan, itxaroten jakitearen garrantzia azpimarratzen dute behin eta berri. Baina Reggio Emilia-

ren eragina ez da soilik funtzionala, baita espaziala, egiturazkoa edota administratiboa ere. Horren erakusle dira adibidez, testuinguru didaktikoari ematen dioten garrantzia edota sukaldariak nahiz laguntzaileak ere zuzenean Udaletik kontratatutako langileak izatea eta ez kanpokoak.

### **Proiektuka lanean**

Egunsenti haur-eskolan proiektuka egiten dute lan, baina zer esan nahi du horrek? Lekunberrik formazio-saioan esplikatu zuenez, proiektuak beti ideia batetik sortzen dira, eta ideia horren atzean, normalki, behaketa eta interpretazioa egon ohi dira. “Horrek guztiak, baina, jarrera zehatz bat eskatzen du: entzuteko jarrera eta begirunezko jarrera. Kutsu subjektibo bat ere badauka, guk behatu dugunaz, gure interpretazioaz, gure nahiaz ari baikara”. Proiektu bat mar txan jartzeko hezitzaileak ideia bati bueltaka hasten direnean, proiektu horren gaineko xehetasunak ere zehaztu egin behar izaten direla gaineratu zuen Lekunberrik. Proiektu hori testuinguru batean garatuko denez, Egunsentin asko zaintzen dituzte espazioa eta giroa. “Guretzat espazio-giroa hirugarren hezitzailea bezalako da, ez dago hor kasualitatez”. Loris Malaguzziren hitzak gogoan, Lekunberrik adierazitako eran, espazio horretan bada testuinguru sozial bat ere: “ni naiz gu garelako”, hau da, besteekin harremanean ikasten du haurrak.

Testuinguru horretan hezitzaileek proposamenak prestatzen dituzte haurrentzat. Helburu nagusia izaten da umeei egiteko, esperimentatzeko, sentitzeko, ekiteko... ahalik eta aukera gehien eskaintzea. Gero, haurrek eurek erabakitzen dute proposamen horretan parte hartu edo ez, eta helduak haurraren erabaki hori errespetatzen du. Nola prestatzen dituzte, ordea, Egunsentiko hezitzaileek proposamenak? “Gela berean gauden bi hezitzaileok haurren ordutegien ara-

bera sartzen gara eskolan, bata lehenagoa eta bestea beranduagoa. Biok batera gaudenean, adibidez, argi tailerra tokatzen bazaigu, bata haur talde txiki batekin tailerrera joaten da eta bestea gainontzeko haurrekin gela geratzen da. Tailerrera doan hezitzaileak zer egiten du? Hamar bat minutu lehenago, haurrik gabe gelatik irten, tailerrera joan eta proposamena prestatu”. Proiektuek planifikazio-lan handia izan ohi dute atzean.

Reggio Emiliako ezaugarri garrantzitsuetariko bat da dokumentazio-lana. Han bezalatsu, egiten duten guztia oso ongi dokumentatzen dute Egunsentin: argazkiak atera, bideoz grabatu, idatziz jaso... Horrek proiektuaren gaineko nahiz hezitzaileen euren jardunari buruzko hausnarketa egiteko balio die: Zerk funtzionatu du proiektutik? Zerk ez? Zer aldatu behar da? Galdera horiei erantzunez, norbere buruaren behaketa eta bakoitzaren jokabideen gaineko gogoeta egiten dute. “Askotan ez gara zer eta nola egiten dugun konturatzen. Baina argazkian edo bideoan gure burua behatzen badugu, beti ikusiko dugu aldatzeko moduko zerbait”.

### **Erantzunkizunak partekatuz**

Bikote pedagogikoka egiten dute lan Egunsentin. Horixe da Reggio Emiliatik hartutako beste ezaugarrietako bat. Gela guztietan bi hezitzaile daude, eta biak arduratzen dira gelako haur guztiez, hau da, haurrek ez daukate erreferentziazko hezitzaile bakarra, bi baizik. Zergatik erabaki dute bikoteka funtzionatzea? Horrela lan egiteak izan ditzakeen hainbat abantaila zerrendatu zituen Lenkunberrik formazio saioan: Horietako lehena da bateragarritasuna edo osagarritasuna, hau da, hezitzaile batek ez duena besteak du, beste hitz batzuekin esanda, bi hezitzaileak elkar osatzen dira; bigarrenik, haurren gaineko arduraren partekatzeak aukera ematen du; hirugarren tokian, ikus-

puntu diferenteak dituzte bi hezitzaileek eta horrek haurrak epaitzeko arriskua murrizten laguntzen die, izan ere “juizioak egiteko joera handia izaten dugu hezitzaileok, normalki, haur batek zerbait egiten duenean hezitzaileari zerbait mugitzen zaio barnean, baina akaso beste hezitzaile bati beste zerbait mugituko zaio, hortaz, bikoteka lan egiteak barneko sentimendu horiek partekatzeak aukera ematen du, eta beraz, ez dut esango ‘ume hau horrelakoa da’, baizik eta ‘momentu horretan ume horrek era honetara edo beste horretara jokatu du’ esango dut”; laugarren abantaila giza harreman bat baino gehiago izateak ematen duen aberastasuna da, bai haurrek eta bai familiek aukera baitute bi pertsonarekin kontaktua izateko, “gainontzean, haur batek tokatu zaion hezitzailearekin konektatzen ez badu, zer egingo du ikasturte osoan zehar? Eta berdin gertatzen da familiekin ere, aldiz, bi hezitzaile badaude, bi eredu diferente dituzte eskura haurrek zein familiek eta harreman on bat eraikitzeak aukerak bikoiztu egiten zaizkie”; bosgarren tokian, hezkuntza lanetan sortzen diren emozioak, zalantzak, proiektuak, ideiak, ilusioak, hausnarketak, eztabaidak... partekatzeak aukera ematen du; seigarrenik, hezitzaileek ikasteko aukera dute beti, elkar behatu eta kritika positiboa egiteko aukera ematen baitu bikoteka lan egiteak; azkenik, talde txiki, ertain eta handiekin lan egiteko aukera ematen du, bakarrik egonez gero, berriz, ezinezkoa da talde txikiekin lan egitea.

Hala, haurrak talde txikitara joaten dira tailerrera, Reggio Emilian bezala. Kide gutxiko taldeak izateari garrantzia handia ematen diote Egunsentin, dokumentatzeko, behatzeko eta prozesu indibidualak jarraitzeko aukera ematen duelako. Lekunberriren hitzetan, modu horretan haurrentzat errazagoa da ikerketan murgiltzea eta beste haurrekin, hezitzaile-



learekin nahiz ingurunearekin harreman ona eraikitzea, “haur batzuk talde handitan galdu egiten baitira, talde txikietan aldiz, harreman estua- goak sortzen dira eta gero harreman horiek tailerretik kanpo ere iraun egin dezakete”. Hezitzaileek tailer batean proposamen bat prestatzen dutenean oso kontuan izaten dute zein hurrekin joango diren tailerre- ra, zein proiektu ari diren lantzen une horretan eta momentu zehatz horretan haurrak nola dauden. “Aurrez pentsatutako haur horiei tailerrera joateko proposamena egiten diegu, baina norbaitek joan nahi ez badu, bere erabaki hori errespetatzen dugu eta beste haur bat gonbidatzen dugu haren ordez”. Proposamenak haur- ren interesei begirakoak izan ohi di- ra. Erabiltzen diren material guztiak berriz, desegituratuak izaten dira: poteen tapak, egur zatiak, kateak... Plastikozko jostailurik ez, baizik eta material errealeak erabiltzen dituzte.

### **Helduaren jarrera, errespetuzkoa**

Lekunberrik esplikatu bezala, Egunsenti haur-eskolako hezitzaile-

en zereginik garrantzitsuena haurrari ziurtasuna ematea da, ziurtasunik ezean haurrek ez baitute ikasiko, eta ez baitira garatuko. “Haurra seguru senti dadin helduak eskuragarri egon behar du eta haurraren ondoan ego- ten jakin behar du, hark nahi duena er- respetatuz”. Entzuten eta itxaroten jakitea ere oso inportantea da, Lekun- berriren ustez, baita beti begirunez jo- katzea ere. “Askotan haurrek gorpu- tzarekin esaten digute zerbait ez dute- la nahi; guk nahi hori interpretatzeko eta errespetatzeko gauza izan behar dugu. Adibidez, haur bati mukiak kendu behar badizkiogu, aurrez esan egin behar diogu zertara goazen eta zergatik egingo dugun hori; egin ezin duguna da bat batean joan eta berari ezer esan gabe sudurrean tiraka hasi”.

Bestalde, hezitzaileak haurre- kin batera ikasteko jarrera eta nahia izatea ere garrantzitsua da, Lekunbe- rriren irudiko, baita haien elkarrizke- ta mailan sartzeko prest egotea ere. Horrez gain, haurrek euren ikaskun- tza prozesua gara ditzaten, hezitzaile- ek baldintzak sortu behar dituztela dio. “Adibidez, gure egitekoa da pro-

posamen interesgarriak eskaintzen jakitea, materialak eta espazioak zaintzea, eta ezer egin edo ezertan es- ku hartu baino lehen behaketa lana egin eta horren gainean hausnartzea. Entzuten ere jakin behar dugu, eta ho- rrek ahozkoa ez den komunikaziora adi egotea esan nahi du. Haurrak ba- ditu 100 modu hitz egiteko. Hezitzaile- ak erne egon behar du haurrak zer nahi duen eta zer ez jakiteko eta eran- tzun egokia emateko”. Haurrei den- bora eman behar zaiela gaineratzen du eta prozesuak ez direla aurreratu behar, hots, une bakoitzean haurrek ikasteko duten era onartu behar due- la hezitzaileak. Proposamenak prestatzeko orduan Egunsenti kontuan izaten duten beste aspektu bat esteti- ka da, konbentziturata baitaude esteti- koki atsegina eta erakargarria denak gonbidatzen duela haurra lan egitera. Azken batean, Lorz Malaguzzik zio- en bezala, eskolak ikerketarako labo- rategi handi bat izan behar duela iru- ditzen zaie Egunsenti, “non dakizki- gun gauzak egiten diren, baina batez ere, ez dakizkigun gauzak gertatzea espero dugun”.

## Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna



**Naiara BERASATEGI**  
GIZARTE PSIKOLOGIAN DOKTOREA

**Egungo gizarteetan, gero eta ohikoagoa da egoera eleaniztunak eta askotariko kulturak topatzea. Oro har, mundu mailako ikuspegitik, gizarteak gero eta pluralagoak dira, eta, gaur egun, nekeza da elebakartasunaz edo kultura-bakartasunez hitz egitea; nahiz eta errealitateak askotarikoak izan, gizartean gero eta eleaniztasun eta kultura-aniztasun handiagoa dugulako.**

Hizkuntzek eta kulturek elkar ukitzen duten egoera hau ez da berria Euskal Herrian, urte asko daramatza euskarak espainierarekin eta frantsesarekin batera bizirik irauten. Euskal Herrian, euskararen egoera ez da hizkuntza normalizatu batena, eta, normalizazioaren bidean, oraindik egiteko handia dago; elebidunen kopurua % 25ekoa da (V. Inkesta Soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, 2012), eta kaleko erabilera, % 13,3koa (Kale Erabileraren VI. Neurketa, Soziolinguistika Klusterra, 2012). Hizkuntza berriak ere sartu dira egoera horretan, eta, beraz, Euskal Herria aniztasun horren adierazle ere bada. Etorri berrien kopurua gero eta handia-

goa da, eta, nahiz eta oraindik beste zenbait lurralderekin konparatuz baxua izan (Katalunia, esaterako), eragin nabaria du hizkuntzen eta kulturen presentzian. Euskal Herriko kaleetan, euskara, frantsesa eta espainiera ez ezik, bestelako hizkuntzak ere entzuten dira: wolofera, errumaniera edo tamazight hizkuntza, adibidez. Uranga eta bestek (2008) egindako ikerketan, 100 hizkuntza zenbatu dira Nafarroan eta EAEn (espainieraz, frantsesaz, ingelesaz eta portugesez gain).

### **Euskal eskola, euskararen normalizazioa, eta hizkuntza- eta kultura-aniztasuna**

Euskal eskolak oraindik ere egiteko handia du euskararen normalizazioaren bidean. Euskararen ezagutzak gora egin du nabarmen, bereziki, haur eta gazteen artean, eta argi ikusten da hor eskolak eragina izan duela ikasle horien euskalduntze-prozesuan. Baina datuak ez dira nahi bezain onak oraindik. Arrue proiektuan (Arrue-ED 2012) Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasle guztien datuak jaso dira. Datu horiek diote, eskola barruan ikaskideekin erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, gela barruan LH4ko ikasleen gehiengoak euskaraz aritzen dela (% 60 beti edo gehienetan euskaraz); eta DBH2n, berriz, gehiengoak espainieraz aritzen dira (% 60 beti edo gehienetan espainieraz). Irakasleekin, ordea, joera nagusia euskaraz egitea da bai gela barruan eta bai gelatik kanpo aztertutako bi ikasmailetan. Gela barruan, LH4ko ikasleen % 74k euskaraz egiten die irakasleei beti edo gehienetan; DBH2n, berriz, ikasleen % 61ek. Gelatik kanpoko harremanetan, % 64 dira irakasleei beti edo gehienetan euskaraz egiten dietenak LH4n, eta DBH2n, berriz, % 52. Datu horiek erakusten dute euskara eskola-testuinguruan eta inguru formalean erabiltzen dela gehien; eta, eremu horietatik aldentzean, euskararen erabilera behera egiten du. Datuetatik ondoriozta daiteke LH4ko ikasleen artean eskolak lortzen duela gizartearekiko nolabaiteko autonomia eremu gisa. Aldiz, DBHko 2. mailan, kanpoko errealitatearekiko loturak askoz estuagoak dira, eta, horren ondorioz, euskararen erabilera baxuagoa da ikasleen artean. Esan daiteke gizarteko hizkuntza-erabileraren arau nagusiekin bat egiteko joera erakusten dutela datuek ikasle gazteagoetatik helduagoetara bidean (Arrue-ED 2012).

Bestalde, ikasleek eskolan dauden bitartean egiten duten hizkuntza-erabilera nolabait neurtzeko, indize bat eraiki dute, eta, indize horretan, LH4ko ikasleen batez bestekoa 3,26koa da, eta DBH2ko ikasleena, berriz, 2,60koa (1=Dena espainieraz, 5=Dena euskaraz). Eskola-eremutik kanpo egiten duten hizkuntza-erabilerari dagokionez, familian egiten den erabilera ezagutu nahi izan dute. Bi ikasmailetako ikasle gehienek etxeetan espainiera bakarrik edo nagusiki espainiera erabiltzen dela ikusi dute (LH4n % 70 eta DBH2n % 74) (Arrue ED 2012).

Euskal eskola ere gizarteak bizi duen aniztasun linguistiko eta kultural horren adierazle da. Azken urteetan, nabaria izan da ikasle etorri berrien bilakaera: 34.921 dira ikasle horiek (Eustat, 2012-2013 ikasturtea); eta, beraz, ezin uka eskola ere erronka handi baten aurrean dagoela. Euskararen normalizazioaren bidean oraindik ere egiteko handia du eskolak, ikasleak elebidunak izan daitezen (edo eleaniztunak). Hortaz, garrantzitsua izango da bide horretan plangintza, proiektu, programa... egokiak garatzea, benetako elebitasun hori lortzeko bidean. Bestalde, etorri berriak benetan bertakotu daitezen, ezinbestekoa izango da etorri berriek bertako hizkuntzak barneratzea, baina, aldi berean, beraien hizkuntzari eta kulturari ere eustea, neurriren batean. Eta hori sustatzeko pausoak eman beharko dira.

Euskara eta espainiera ez diren bestelako hizkuntzak dituzten ikasleak gero eta gehiago dira ikastetxeetan. Eskoletan, ikasle etorkinen hizkuntzen artean nagusi diren bost lehenengoen artean, espainiera da lehena. Ikasle etorri berrien %63ren etxeko hizkuntza espainiera da. Horren ondotik, %10 gainditzen duten hizkuntzak portugesa (portugesa erabiltzen duen komunitatea: Portugal, Brasil, Mozambike, Angola eta Cabo Verde) eta arabiera/tamazight hizkuntza dira. Txinera eta errumaniera % 10aren azpitik kokatzen dira. Argi dago, beraz, beste hizkuntza batzuk dakizkiten ikasleen presentzia gero eta nabariagoa dela ikastetxeetan (Etxeberria, 2006).

Etorri berriak harrera-herrialdera iristean, hainbat zailtasun eta erronkari aurre egin behar izaten diote, eta, horien artean, bertako hizkuntza edo hizkuntzak ikastea izaten da erronka nagusietakoa. Kasu askotan, harrera-lurraldeko hizkuntza edo hizkuntzak erabat arrotzak dira etorri berrientzat. Baina beste batzuetan ez; izan ere, etorkinen jatorrizko herrialdeko hizkuntza eta harrera-herrialdeko hizkuntza berbera izaten da. Baina bada hirugarren kasu nagusi bat ere: litekeena da etorri berriak harrera-lurraldeko hizkuntza bat jakitea, baina ez bestea edo besteak. Azken hori oso ohikoa da, esate baterako, Hego Ameriketatik Hego Euskal Herrira datozenen kasua (Manterola & Berasategi, 2012). Era berean, erronka berriak sortzen dira eskolarentzat, horien artean, hizkuntzaren eta kulturaren trataera nolakoa izango den ere nabarmentzekoa da. Azken batean, Serrak (2002) dioenez, azken urteotan nabarmen aldatu den eszena berri baten aurrean gaude; arazo berriak sortu dira, eta horrek planteamendu eta prozedura berriak eskatzen ditu.

Bide horretan, garrantzitsua izango da harrera-herrialde-tik era askotako mekanismo eta bitartekoak eskaintzea, etorkinek hizkuntza berri horiek ikas ditzaten. Garrantzitsua baita harrera-lurraldeko hizkuntzak ikastea, bai beren garapen pertsonalerako eta bai gizartean eta kulturaren bertakotzeko. Baina, bestalde, oso garrantzitsua da, baita ere, etorri berrien hizkuntzak ikasi eta sustatzea. Hau da, etorkinek ez ditzatela euren jatorrizko hizkuntzak alde batera utzi, harrera-lurraldeko hizkuntzak ikastearren. Jakina delako, era berean, ikaslearen lehen hizkuntzak zer-nolako eragina duen bigarren hizkuntzan, betiere oinarriko baldintza batzuk betetzen badira: 1) bigarren hizkuntzaren kokapen egokia, bai eskolan eta bai inguruan; 2) bigarren hizkuntza ikasteko motibazioa (Cummins, 1979).

Beraz, hizkuntzen eta kulturen erabileraren auzia ez da kontu erraza. Sarri, eskola izan da hizkuntza berreskuratzeko eta erabiltzeko esparru nagusia, giltzarria. Euskal Herrian ere, eskolaren bidez lortu da gazte asko euskalduntzea, eta ezin uka daiteke eskolak bete duen zeregina euskararen normalizazioan. Horregatik guztiagatik, errealitate berri eta plural horren aurrean, eskola aproposa izan daiteke hizpide dugun aniztasun linguistiko eta kultural berri hori kudeatzeko eta hizkuntzei eta kulturei dagokien lekua aitortzeko. Horretarako, ezinbestekoa izango da esku-hartze eta programa baliagarriak eta arrakastatsuak abiaraztea, beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide materialak eskainiz. Baina, horretarako, beharrezkoa da aurretik kulturekin eta hizkuntzekin ikasleek dituzten harremanak nolakoak diren aztertzea ere; hizkuntza-erabilerak eta kultura-praktikak nolakoak diren, ikasleak nola gizarteratzen diren eta beste hainbat kontu aztertzea. Aurrera eraman dugun ikerketa bide horretan kokatzen da, eta errealitate berri hori pixka bat hobeto ezagutzeko asmoa du.

## Ikerketaren nondik norakoak


### Helburuak

Testuinguru honetan, ikerketa honen helburu nagusia da Bilboko ikasleen (autoktonoak eta etorkinak) praktika linguistikoak (euskara, espainiera eta beste hizkuntza batzuenak) eta kulturalak aztertzea eta, zehatzago, euskararen erabilerak eta euskal kulturaren praktikak nolakoak diren eta praktika horietan zein faktorek eragiten duten aztertzea, bai eta etorkizuneko hizkuntza-eta kultura-plangintzarako egokiak izango diren bideak urratzea ere.

### Lagina


Ikerketa honetan, Bilboko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 989 ikaslek parte hartu dute, eta datuak 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan zehar bildu dira. Ikasle gehienak Bilbon jaiotakoak dira, % 81,5. Europako beste herrialde batetik datozenen kopurua % 1,8koa da, eta Europatik kanpoko herrialdeetatik datozenen kopurua, berriz, % 12,8koa (1. grafikoa). Ikasle etorkin gehienak Latinoamerikatik datoz; ondoren, Europatik eta Afrikatik, eta, azkenik, Asiatik.

1. grafikoa. Ikasleak, jatorriaren arabera



Ikasle gehienak ikastetxe publikoetara doaz (% 62,1); % 19,3 itunpeko ikastetxe erlijiosoetara, eta % 18,5 itunpeko ikastoletara (2. grafikoa). Eredu linguistikoari dagokionez, gehienek D eredua aukeratzen dute, % 57,4k; ondoren, B eredua aukeratzen dutenak datoz, % 21,3, eta, azkenik, A eredua aukeratzen dutenak % 15,1 dira (3. grafikoa).

2. grafikoa. Ikasleak, ikastetxe motaren arabera



3. grafikoa. Ikasleak, eredu linguistikoaren arabera



### Neurgailua eta prozedura

Ikasle autoktonoen eta etorkinen praktika linguistiko eta kulturalak aztertzeke nahiarekin, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartu ditugu, galdera itxi eta irekiekin osatutako galdesorta bat erabiliz (Berasategi, 2014; Berasategi & Larrañaga, 2014; Larrañaga et al., 2010). Datuen analisia egiteko SPSS 20.0 programa erabili da. Artikulu honetarako, ikerketa horretako zenbait datu eskainiko ditugu.

### Emaitzak

Ikerketa honetako emaitzek erakusten dute Bilboko Derigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailetan aztertutako ikasle autoktonoen gehienak D eredura (% 65,6) doazela, eta ikasle etorkinen gehienak (% 49,0) A eredura (1. taula).

Datu horiek bat datoz aurretik egindako beste ikerketa batzuekin (Septien, 2006; Zapata, 2006; Ikuspegi, 2010), non ikusten den eredu linguistikoaren hautua desberdina dela jatorriaren arabera; hala, autoktonoen gehienek D eredua aukeratzen dute, eta etorkinen gehienek, berriz, A edota B eredua.

1. taula. Ikasleak, jatorria eta eredu linguistikoaren arabera

	AUTOKTONOAK		ETORKINAK		c <sup>2</sup>
	N	%	N	%	
A eredua	73	8,8	71	49,0	210,407***
B eredua	174	20,9	36	24,8	
D eredua	546	65,6	20	13,8	
X eredua	2	0,2	3	2,1	
Zehaztu gabe	37	4,4	15	10,3	
<b>Guztira</b>	<b>832</b>	<b>100,0</b>	<b>145</b>	<b>100,0</b>	

\*\*\* p<0,001

Aztertutako ikasle autoktonoen gehienak ikastetxe publikoetara doaz (% 63,7); ondoren, itunpeko ikastoletara (% 21,9) eta itunpeko erlijiosoetara (% 14,4) doazenak datoz. Ikasle etorkinen kasuan, gehienak publikoetara doaz kasu honetan ere (% 53,1), eta, ondoren, itunpeko erlijiosoetara (% 46,9) doazenak daude. Nabarmendu behar da aztertutako laginean ez dagoela itunpeko ikastolara doan ikasle etorkinik (2. taula).

2. taula. Ikasleak, jatorria eta ikastetxe motaren arabera

	AUTOKTONOAK		ETORKINAK		c <sup>2</sup>
	N	%	N	%	
Publikoa	530	63,7	77	53,1	101,620***
Erelijiosoa	120	14,4	68	46,9	
Ikastola	182	21,9	-	-	
<b>Guztira</b>	<b>832</b>	<b>100,0</b>	<b>145</b>	<b>100,0</b>	

\*\*\* p<0,001

Ikasle autoktono gehien etorkin-kopuru txikia duten ikastetxeetan daude (% 43,9), edo ikasle etorkin-kopuru ertaina duten ikastetxeetan (% 48,8); ikasle etorkinak, berriz, etorkin-kopuru ertaina duten ikastetxeetan (% 42,1) edo kopuru altua dutenetan (% 53,1) kokatzen dira (3. taula).

3. taula. Ikasleak, jatorria eta ikastetxeak duen etorkin kopuruaren arabera

	AUTOKTONOAK		ETORKINAK		c <sup>2</sup>
	N	%	N	%	
<% 5	365	43,9	7	4,8	233,754***
% 5-40	406	48,8	61	42,1	
>% 40	61	7,3	77	53,1	
<b>Guztira</b>	<b>832</b>	<b>100,0</b>	<b>145</b>	<b>100,0</b>	

\*\*\* p<0,001

Ikasle gehienek, % 62,7k, espainiera erabiltzen dute etxean; % 18,9k euskara eta espainiera, eta gutxi dira euskara erabiltzen dutenak, % 4,3.

Etorkinen kasuan ere, espainiera da nagusitzen dena (% 62,8), baina beste hizkuntzek ere badute nolabaiteko presentzia (% 11,7). Horrek badu bere logika; izan ere, ikasle etorkin horien gehienak latinoamerikarrak dira. Aipatzekoa da beste hizkuntzen artean nagusitzen den hizkuntza-aniztasuna, aztertutako laginean euskara eta espainiera ez diren 20 hizkuntza baitaude. Horien artean, nagusiak: berberera (Tamazight), arabiera, portugesa, txinera eta errumaniera (4. taula).



4. taula. Ikasle etorkinak eta euren familian hitz egiten diren hizkuntzak

	N	%
<b>Euskara</b>	<b>1</b>	<b>0,7</b>
<b>Espainiera</b>	<b>91</b>	<b>62,8</b>
<b>Espainiera eta beste hizkuntza batzuk</b>	<b>17</b>	<b>11,7</b>
Espainiera eta euskara	1	<b>18,6</b>
Espainiera eta frantsesa	1	
Espainiera eta ghanera	1	
Espainiera eta guaraniera	1	
Espainiera eta yonbera	1	
Espainiera eta portugesa	1	
Espainiera eta persiera	1	
Espainiera eta portugesa	1	
Espainiera, alemana eta euskara	1	
Espainiera, ingelesa eta twuliera	1	
Espainiera, portugesa eta italiara	1	
Espainiera eta ingelesa	2	
Espainiera, yuluera eta frantsesa	1	
Espainiera eta errumaniera	3	
<b>Beste hizkuntza batzuk</b>	<b>27</b>	
Berberera (Tamazight)	6	
Arabiera	4	
Portugesa	4	
Txinera	4	
Errumaniera	3	
Ingelesa	2	
Guaraniera	1	
Italiara	1	
Koreera	1	
Serbiera	1	
<b>Zehaztu gabe</b>	<b>9</b>	<b>6,2</b>
<b>Guztira</b>	<b>145</b>	<b>100,0</b>

Ikasle horiek, 5. taulan ikus daitekeenez, bereziki eskolako testuinguruan erabiltzen dute euskara (% 51,2), eta, esparru horietatik aldentzean, euskararen erabilera nabarmen jaisten da, eta espainieraren erabilera igotzen. Etorkinen kasuan ere, eskolan erabiltzen da euskara gehien, baina erabilera hori nabarmen baxuagoa da autoktonoen aldean (% 57,5 vs % 17,2). Ikasle horiek euskara erabiltzen dute eskolan, eta Bilbon nagusi den espainieraren erabilera jotzen dute eskolatu testuingurutik aldentzean.

Beste hizkuntzei dagokienez, ikus daiteke familia delan arnagunea, eta familian erabiltzen dituztela gehien hizkuntza horiek. Etorkinak dira beste hizkuntzak gehien erabiltzen dituztenak (% 21,9). Familiatik kanpoko esparruetan, beste hizkuntzek badute nolabaiteko presentzia, lagunartean (% 5,8) eta eskola atarian (% 3,6). Eskolan, aldiz, beste hizkuntzek ez dute presentziarik.

5. taula. Ikasleek hainbat esparrutan egiten duten hizkuntza, ikasleen jatorriaren arabera

		LAGIN OSOA	AUTOKTONOAK	ETORKINAK	
		N (%)	N (%)	N (%)	c <sup>2</sup>
<b>Eskolan</b>	<b>Euskaraz</b>	467 (51,2)	443 (57,5)	23 (17,2)	<b>74,360***</b>
	<b>Espainieraz</b>	443 (48,5)	326 (42,3)	110 (82,1)	
	<b>Beste batean</b>	3 (0,3)	2 (0,3)	1 (0,7)	
<b>Eskolako atarian</b>	<b>Euskaraz</b>	27 (2,8)	27 (3,4)	0 (0,0)	<b>16,665***</b>
	<b>Espainieraz</b>	914 (96,2)	772 (96,1)	133 (96,4)	
	<b>Beste batean</b>	9 (0,9)	4 (0,5)	5 (3,6)	
<b>Familian</b>	<b>Euskaraz</b>	87 (9,4)	85 (10,9)	2 (1,5)	<b>111,039***</b>
	<b>Espainieraz</b>	797 (85,8)	684 (87,4)	105 (76,6)	
	<b>Beste batean</b>				
<b>Lagunartean</b>	<b>Euskaraz</b>	43 (4,6)	43 (5,4)	0 (0,0)	<b>27,344***</b>
	<b>Espainieraz</b>	883 (93,9)	744 (93,8)	130 (94,2)	
	<b>Beste batean</b>	14 (1,5)	6 (0,8)	8 (5,8)	

\*\*\* p<0,001

Euskararen erabilera orokorrean eta euskal kulturaren praktikan hainbat alderdik zer-nolako eragina daukaten aztertutako du. Aldagai linguistiko eta kulturalen barruan: euskararen ezagutza eta erabilera, euskal kulturaren ezagutza eta praktika; psikosozialen artean: harreman-sareak, identitatea, eta hizkuntzekiko zein kulturekiko jarrera eta motibazioa; psikopedagogikoen artean: poza bizitza pertsonalarekin eta EA-En bizitzearekin, ikastetxean nola sentitzen diren, ikaskideekin duten jarrera, ikasgelan duten jarrera, emaitza akademiko-en gaineko balioespena, gurasoek eskolako lanetan ematen dieten laguntza. Korrelazio analisiak egin ditugu, aipatutako aldagai horiek euskararen erabilera orokorrarekin eta euskal kulturaren praktikarekin harremanik ba ote duten aztertzeko.

Hala, ikusi da bereziki alderdi linguistiko eta kulturalak direla eragin handiena dutenak euskararen erabilera eta euskal kulturaren praktikan, bai ikasle autoktonoen eta bai ikasle etorkinen kasuan. Euskararen ezagutza maila eta euskal kulturaren praktika dira euskararen erabilera orokorrarekin gehien erlazionatzen diren aldagaiak. Horien ondotik, jarrera-alderdiekin (euskara ezagutu nahia) eta identitatearekin (euskaldun sentitzea) erlazionatutakoak lirateke euskararen erabilera orokorrarekin gehien erlazionatzen direnak.

Euskal kulturaren praktika orokorrarekin gehien erlazionatzen diren aldagaiak, aztertutako taldeetan (ikasle autoktonoak eta ikasle etorkinak), alderdi linguistiko eta kulturekin erlazionatuta daude (euskal kulturaren ezagutza eta euskararen erabilera orokorra). Ondoren, jarrera-alderdiekin erlazionatutakoak datoz (euskal kultura ezagutu nahia).

Ondorioz, esan daiteke, bai euskararen erabilera orokorrean eta bai euskal kulturaren praktikaren kasuan, hizkuntza horren ezagutzak hizkuntza horren erabilera eragiten duela hizkuntzari dagokionez (hau da, euskararen erabilera orokorrean), eta alderantziz. Kulturaren kasuan ere, kultura horren

ezagutzak kultura horren praktikan eragiten du, eta alderantziz ere horixe gertatzen da. Hortaz, ezagutzaren eta praktika-aren arteko harremana argia da, bai euskararen kasuan eta bai euskal kulturaren kasuan.

Hizkuntzaren eta kulturaren arteko harremana ere argia da. Euskararen erabilera orokorrean, euskal kulturaren praktikak eragiten du. Era berean, euskal kulturaren praktikan euskararen erabilerak eragiten du. Hori dela eta, argi geratzen da kasu honetan ere euskararen erabileraren eta euskal kulturaren praktikaren artean dagoen zentzu biko harremana.

Jarrerazko alderdiak (euskara eta euskal kultura ezagutu nahia) eta identitate-alderdiak ere (euskaldun sentitzea) garrantzitsuak dira, bai euskararen erabileran eta baita euskal kulturaren praktikan ere (6. taula).

6. taula. Euskararen erabilera orokorrekin eta euskal kulturaren praktika orokorrekin erlazioztatzen diren aldagaiak ( $r \geq 0,400$ )

EUSKARAREN ERABILERA OROKORRA	
IKASLE AUTOKTONOAK	IKASLE ETORKINAK
Euskararen ezagutza ( $r=0,594^{***}$ )	Euskararen ezagutza ( $r=0,615^{***}$ )
Euskal kulturaren praktika ( $r=0,571^{***}$ )	Euskal kulturaren praktika ( $r=0,513$ )
Euskara ezagutu nahia ( $r=0,505^{***}$ )	Euskara ezagutu nahia ( $r=0,481^{***}$ )
	Euskaldun sentitzea ( $r=0,401^{***}$ )
EUSKAL KULTURAREN PRAKTIKA	
IKASLE AUTOKTONOAK	IKASLE ETORKINAK
Euskal kulturaren ezagutza ( $r=0,568^{***}$ )	Euskal kulturaren ezagutza ( $r=0,537^{***}$ )
Euskararen erabilera orokorra ( $r=0,596^{***}$ )	Euskararen erabilera orokorra ( $r=0,513^{***}$ )
Euskal kultura ezagutu nahia ( $r=0,545^{***}$ )	Euskal kultura ezagutu nahia ( $r=0,407$ )
Euskararen ezagutza ( $r=0,571$ )	
Euskara ezagutu nahia ( $r=0,447^{***}$ )	

1etik 5erako Likert eskala.  $^{***}p < 0,001$

## Ondorioak

Datuak kontuan izanik, ikus daiteke euskararen erabileraren inguruko datuak ez direla nahi bezain onak. Eskola-eremuan erabiltzen dute Bilboko ikasle horiek euskara gehien, baina ikusi dugu eskolak bere mugak dituela; izan ere, eskolatikaldentzean, Bilbon nagusi den espainiera erabiltzera jotzen dute ikasleek. Euskararen erabilerak babesa duen gunean erabiltzen dute euskara gazteek, eta, gune horretatik aldentzean, gizartean eta kasu honetan Bilbon nagusi den espainiera erabiltzera jotzen dute. Egoera horri aurre egiteko, garrantzitsua litzateke guneak zabaltzea ikasleen euskararen erabilerara bultzatzeko eta ahozkotasuna lantzeko, gune formaletik harago doazen gune “naturalak” sortuz. Horretarako, dauden solasaldiko gunez baliatzea litzateke aproposena; baina, horrelakorik egon ezean, bestelako guneak sortzea litzateke bideetako bat, eta, bide horretan, eskolaz kanpoko jarduerak izan daitezke jomugetako bat.

Ikasle etorkinen kasuan, egoera oraindik okerragoa da; eskolan erabiltzen dute ikasle horiek ere euskara gehien, baina erabilera hori nabarmen baxuagoa da autoktonoen aldean. Datu horietan eragina du, besteak beste, ikasle etorkin gehienak A eta B ereduatan matrikulatuta egoteak, eta horrek, noski, euskararen ezagutza baxuagoa dakar. Euskalduna ez den eredu matrikulatzeak ikasleen harreman-sareetan euskaraz dakiten ikasle gutxiago egotea dakar, eta hori ere oztopo da ikasle horiek euskara ikasi eta erabiltzerako orduan. Bide horretan, garrantzitsua izango da eredu aukeraketa horrek ekar ditzakeen ondorioak jendarteari azalaraztea, bereziki ikasle horien gurasoei, eta egoera horri aurre egiteko neurriak hartzea, baldin eta ikasle etorkinek bertakoek dituzten aukera berak izatea nahi badugu. Baina kontu izan behar dugu, murgiltze-programek (euskararekiko D eredu) agian egoera berr horri aurre egiteko hutsuneak izan ditzaketelako (Navarro, 2003). Horrek ez du esan nahi murgiltze-programek balio ez dutenik, egungo beharizan linguistikoak asetzeko nahikoak ez direnez hezkuntza-praktika egoera berrira egokitu behar ko direla baizik.

Bide horretan, garrantzitsua izango da harrera-herrialde- tik era askotako mekanismo eta bitartekoak eskaintzea, etorkinek harrera-lurraldeko hizkuntzak ikas ditzaten. Baina, bestalde, oso garrantzitsua izango da, baita ere, etorri berrien hizkuntzak ikasi eta sustatzea, neurriren batean behintzat. Hau da, etorkinek ez ditzatela euren jatorrizko hizkuntzak alde batera utzi, harrera-lurraldeko hizkuntzak ikastearren. Jakina delako lehen hizkuntzak bigarren hizkuntzan duen eragina (Cummins, 1979).

Eskolan presente dauden kultura eta hizkuntza guztiak kontuan hartuta bideratu behar lirateke ekimenak: ikasleen hizkuntzen gaineko informazioa zabaltzea eta eskolan hizkuntza horiek horma-irudien edo bestelako bitartekoen bidez ikusaraztea izan liteke bide bat. Halaber, askotariko jatorriak dituzten ikasleak desberdintasunak onartzeko hezi behar dira, eta, hortik abiatuta, elkarrekintza komunikatiboetan irakasleek zein jatorriz bertakoak diren ikasleek euren jarduna etorri berrien hizkuntza-gaitasunetara egokitzen ikasi behar dute.

Egin den ikerketan, argi ikusi dugu hizkuntzen eta zehazki euskararen erabilerarako kulturaren ezagutzak zein praktikak duten garrantzia. Baina eskoletan egiten al dira jarduerak eta programa zehatzak kulturak lantzeko? Galdera horri erantzutea litzateke lehenengo pausoa, baina, erantzuna ezezkoa den kasuetan, neurriak hartu eta tokian tokiko programak zein jarduerak diseinatu behar lirateke. Bide horretan, garrantzitsua izango da eskoletan hizkuntza gutxituekiko zein kultura gutxituekiko begirunean oinarritutako gizarte eleaniztun eta barneratzaile baterako ikuspegia sustatzea.

Hizkuntzaren edo kulturaren irakaskuntzarekin eta erabilerarekin eremuak bultzatzearekin batera, egin den ikerketan garbi ikusi da, halaber, garrantzitsua dela hizkuntzarekiko zein kulturekiko jarrera eta motibazio positiboak gartztea. Ikusi dugunez, jarrera eta motibazioak garrantzitsuak dira hizkuntzaren zein kulturaren praktika aurrez esateko. Hizkuntza ikasteko interesa ez da berez sortzen, eta, hortaz, ikasleengan hizkuntza ikasteko gogoia piztu behar da. Horrek ikasleek motibazioa eta jarrera positiboa edukitzea ahalbidetuko du. Horretarako, garrantzitsua izango da ikaskuntza erakargarri bihurtzea eta esanguratsua izatea.

Bide horretan, garrantzitsua izango da gelan erabiltzen diren metodologiak aktiboak izatea eta ikaslearen parte-hartzea sustatzea ere, ikasleari hizkuntza erabiltzeko aukerak zabaltzen baitzaizkio horrela, ahozkotasuna landuz. Ikasleak bere hezkuntzaren partaide aktibo bihurtu behar du, eta, hori lortzeko, haren nahi eta beharretatik abiatu beharra dago. Ikaskuntza-prozesu osoa subjektu aktibo bihurtzeak, aldi berean, ikaslearen beraren motibazioa handituko eta jarrera hobetuko duelako. Ikasleak aurkikuntzaren eta esperimentazioaren bidezko ikaskuntza egin dezan bilatuko da. Metodologia hori gauzatzeko, guztiz baliagarria izango da ikuspegi kolaboratzailea erabiltzea, ikasleen arteko harreman-sareak zabaltzea eta finkatzea lortzen delako horrela eta, era berean, ikasleen arteko konplizitatea eta harremanak hobetzen direlako.

Bestalde, ezinbestekoa izango da, bide luze zein aberats

horretan, komunitate guztiaren inplikazioa, eta bereziki gurasoen eta ikastetxearen arteko elkarkidetzea. Jakina baita edozein ikaskuntza-prozesu era arrakastatsuan gerta dadin familiaren inplikazioak izan dezakeen garrantzia. Horregatik, eskolak guraso etorkinen parte-hartzea bideratu eta indartu beharko luke, bai eta familiaren motibazioa sustatu ere, haurrak animatzeko eta beraien ikaskuntza-prozesuan laguntzeko. Gurasoei adierazi beharko zaie lurraldeko hizkuntzak ikastea lagungarri izan daitekeela euren haurra lurralde horretan gizarteratzeko, nahiz eta askotan hizkuntza gutxitua izan. Baina, era berean, funtsezkoa izan daiteke gurasoek ikusteak eskolak euren jatorrizko hizkuntzak errespetatzen dituela eta baliagarri ikusten dituela. Horrek guraso zein haur etorkinek beren hizkuntzarekiko sentitzen duten identifikazioa handitzea ekarriko duelako.

## Bibliografia

- Arrue-Ebaluazio Diagnostikoa 2011: Ikasleen hizkuntza erabileraren datuak. Eusko Jaurlaritzak, ISEI-IVEI & Soziolinguistika Klusterra (2012). Retrieved 03/02, 2014, from [http://www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/2802/Arrue\\_Prentsaurrekoa\\_eus.pdf?1359118341](http://www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/2802/Arrue_Prentsaurrekoa_eus.pdf?1359118341)
- Berasategi, N. (2014). Hizkuntza eta kultura aniztasuna Bilboko eskoletan. Euskararen erabileraren eta euskal kultur praktikan eragiten duten faktoreak. PhD thesis, University of the Basque Country-UPV/EHU.
- Berasategi, N., & Larrañaga, N. (2014). Diversidad lingüística y cultural en el contexto educativo. Actitudes y prácticas. *Inguruak*, 61-69.
- Cummins, J. (1979). Linguistic interdependence and the educational development of bilingual children. *Review of Educational Research*, 49, 222-251.
- Etzeberria, F. (2006). Enseñanza de las lenguas con alumnos inmigrantes. *Eusko news & Media*. Retrieved 01/02, 2014, from <http://www.euskonews.com/0339zkb/gaia33906es.html>
- Eusko Jaurlaritzak (2012). V. Inkesta Soziolinguistikoa. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak.
- Eustat (2013). Datu estatistikoak. Retrieved 02/10, 2014 from [http://www.eustat.es/estadisticas/tema\\_300/opt\\_0/](http://www.eustat.es/estadisticas/tema_300/opt_0/)
- Ikuspegi@k. Gizarte Gaien Behatokiak (2011). Datu estatistikoak. Retrieved 02/10, 2013 from <http://ikuspegi-inmigracion.net/es/estadisticas/estadisticas.php>
- Larrañaga, N., Azurmendi, M.J., Berasategi, N., & Etxepetelaku (2010). Aniztasun linguistikoa eta kulturala euskal eskolan. *Inguruak*, 61-69.
- Manterola, I., & Berasategi, N. (2011). *Hizkuntza gutxituen erronkak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Navarro, J.L. (2003). *Inmigración en España y conocimiento de la lengua castellana. El caso de los escolares inmigrados en Aragón*. PhD thesis, University of Lleida.
- Septién, J. (2006). *Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*. Vitoria-Gasteiz: Arartekoa.
- Soziolinguistika Klusterra. (2012). Hizkuntzen kale-erabileraren VI. neurketa.
- Uranga, B., Aierdi, X., Idiazabal, I., Amorrortu, E., Barreña, A., & Ortega, A. (2008). Hizkuntzak eta Immigrazioa. *Lenguas e Inmigración*. Bilbo: Ikuspegi, UNESCO etxea, UPV/EHU.
- Zapata, M. (2006). Etorkinak eta hizkuntza ereduak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak.

## Zertan lagun diezaioke ikasleari gaztetatik programatzen ikasteak



Azken urteotan teknologia berrien garapen handia bizitzen ari gara. Teknologiaz inguraturik bizi gara eta gure egunerokotasuneko arlo gehienetan erabiltzen ditugu ordenagailuak, mugikorrak edota bestelako aparatuak (programatuak izan direnak), eta inork ez du zalantzan jartzen aurrera begira teknologiaren presentzia eta garapenak aurrera egingo duela XXI. mendeko gizartean, eta gero eta abiadura handiagoz gainera.

Hezkuntza ez da garapen teknologiko honetatik at gelditu, izan ere hezkuntza saila hasia baita aurrerapen hauek eskoletan txertatzeko planteamenduak sortu eta praktikan jartzen.

Euskal curriculumean agertzen diren hainbat eduki eta gaitasun lantze daitezke programazioaren bidez. Euskal Herriko ikastetxeetan ematen diren ikasgai ia guztietan erabil daitezkeela ondorioztatu dugu, eta baita jarraitzaileak eta baloreak lantzeko ere:

**FISIKA:** magnitudeak, unitateak,



**Nerea ATXEGA**

KODE-ESKOLAKO KOORDINATZAILEA

neurtzeko instrumentuak, materia, energia, mugimendua, inertzia, erorketa librea, elektrizitatea, mekanika, fluidoak, argia, beroa...

**KIMIKA:** gorputzak, materialak, erreakzioak, nahasketak, substantzien propietateak, materiaren eraldaketak...

**MATEMATIKA:** oinarriko eragi-

ketak, azalera, bolumena, magnitudeekin kalkuluak egitea, ekuazioak, proportzionalitatea, estatistika...

**BIOLOGIA:** zoologia, botanika, biodibertsitatea, ingurugiroa, ekologia, etologia, paleontologia, genetika...

**NATUR ZIENTZIAK:** luraren mugimenduak, puntu kardinalak, biomak, orografia, kostaldea, ilargi faseak, astronomia...

**HISTORIA:** leku arkeologiko eta historikoak (bisita interaktiboen bidez...)

**TEKNOLOGIA:** tresnak, makinak, lehengaiak, produktuak, automatizazioa, kontrol eta produkzio sistemak, energia sortzeko teknologiak, elikagaiak sortzeko teknologiak...

**ARTEA:** soinua, musika, koloreak, estetika, formak, dimentsioak...

**HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA AUTOESTIMUA:** talde-lana, rola, errespetua, kodigoak...

**BALOREAK:** indibidualismoa eta leihakortasuna ekidin...



**Txikitatik ingelesa eta txinera erakusten diegun bezala, irakats diezaiegun programatzen haur eta gazteei, oinarritzko gaitasuna izango baita programazioa kultura digitalak sortuko dituen etorkizuneko lanetan**



Hala ere, adituek diotenez, gai honen inguruan irakasleek duten formakuntza ez da oso handia, eta honek hainbat eragozpen ekartzen ditu praktika berri hauek arrakasta izateko orduan.

Kode-Eskolan, gizartearen egungo errealitatea ikusita, teknologia berriak hezkuntzan erabiltzeko moduak praktikan jartzen ari gara, eta aldi berean, hauek haurren hezkuntzan izan ditzaketen onurak aztertzen. Erabiltzen ditugun baliabideak oso zabalak dira, scratch-etik hasi eta Java eta Unity arte.

Programatzen ikastea teknologia-aren hizkuntza ikastea da, kodea ikastea da. Gure gizartean ezezaguna bezain erabilia den hizkuntza, alegia. Txikitandik ingelesa eta txinera erakusten diegun bezala, irakats diezaiegun programatzen haur eta gazteei, oinarritzko gaitasuna izango baita programazioa kultura digitalak sortuko dituen etorkizuneko lanetan. Gaur egun hezitzen ari diren umeen lanbide gehienak ez dira oraindik asmatu! Horretan programazioan trebatuta egoteak abantaila suposatzen du, azken finean programazioak pentsatzen irakasten baitigu.

2014ko udan sortu genuen Do-

nostian Kode-Eskola hezkuntza proiektua ([www.kode-eskola.com](http://www.kode-eskola.com)), 8-16 urteko gazteei zuzendutakoa. Biziki ahalegindu gara betidanik heziketarako tresna berriak lortzen, hezkuntza metodologietan berritasunei etengabe harrera egiten, eta teknologia berrietarako joera duten gazteen profila zabaltzen, eta adin gero eta gazteagoetatik programatzen ikasten hasteak dakartzan onurak bereziki lantzea eta bultzatzea erabaki genuen: **geure ezagutzak egituratzen eta aztertzen, geure ikaskuntza prozesua kontrolatzen, laguntzen digu adin goiztiarretan**

**programatzen ikasteak.** Gainera, **hizkuntza formalak ikasita, zehatzago hitz egin eta pentsatu ahal izango dute haurrek problema konplexuei buruz.**

Irakaskuntzan trebaturiko lan-talde baten gidaritzapean, Kode-Eskolaren helburu nagusia ez da etorkizuneko programatzaile profesionalak heztea (eskolako musika edo literatura ikasgaien helburua etorkizuneko musikari profesionalak edo biharko idazleak heztea ez den bezala). Baina, jakina, gure ikastaroen bitartez **zientzia eta teknologia arloetarako boko-zioa**, nesken artean batez ere, pizten



## Programazioa epe laburrean eskolako arlo guztietan txertatuko dela

uste dugu, tresna paregabea baita edozein ezagupen

barneratzeko, geografia eta historiatic hasi eta bide-hezkuntzako edukietaraino

eta hedarazten baldin badugu, primeran! Kode-Eskolak neska gehiago erakarri nahi ditu programaziora. Saia gaitezen bokazio teknologikoetarako genero etena gainditzten!

Programatzen ikasteko inguru eta plataforma ezin erakargarriagoak, intuizioan oinarrituak guztiak, dauzkagu gaurko egunean.

Hona, gainera, garrantzitsuenak: izugarri gogoko dituzte ikasleek! Eta hain zuzen ere, iazko tailer eta campusetan frogatu ahal izan genuen izugarri gogoko dutela ikasleek programatzea eta ikusi genuen **sormen, pentsamendu logiko eta problemen ebazpenarako gaitasuna bizkortzen duela programazioak**.

Gure itxaropen guztiak gainditu ditu 2014. urtean garatutako tailer, ikastaro eta campusetako parte hartzaileen aseak, eta horrenbestez sortu dugu **TechLAB** programa, urtariletik aurrera ostiraletan eta larunbatetan garatuko ditugun laborategi teknologikoak, **hezkuntza, sormena eta teknologia** programazioaren bidez uztartuz.

Kode\_Eskolak antolatu dituen beste ikastaro eta tailerretan bezala, praktikoa izango da guztiz TechLAB-en jarduna. Taldean eta proiektuen inguruan egiten dute lan ikasleek eta, metodologia sortzaile baten bidez, modu eraginkorrean esku hartzen

dute gazteek ikaskuntzan *[pentsatu, frogatu, buts egin eta ikasi!]*. Ez da, beraz, goitik zuzenduriko ikastaroa, baizik eta parte hartzaileen profilerako egokituriko esperimentazio tailer gidatua.

Adin goiztiarretan programatzen ikasten hastea eta bokazio teknologikoak sustatzea eskolaz kanpoko beste jarduerak batzuekin konpetentzian sartzen da (ingelesa, txinera, kirola, musika...). Jarduera guzti hauekin gurasoek haien seme-alabengan ezagupen eta zaletasunak zabaltzea nahi izaten dute, baina ez dute beti hori lortzen. Programatzen ikasteak badu desberdintasun esanguratsu bat: gure ikasleek ez dute etxera joan nahi izaten, programazioaren ikaskuntza dibertigarria delako! Eta horren arrazoi nagusia gure irakasleen profila da, irakaskuntzan trebatuak baitira, eta ez da gauza bera gertatzen injenieri bat gaztetxoekin irakaste lanetan hasten denean. Kodea idazten ikasteko eskola bat sortzeko nahia hain zuzen horrexegatik sortu zitzaien: geure seme-alabak ezagupen handiak zituen injenieri batekin programazio ikastaro bat egin ondoren, alegia. Aditua zen monitore hura, baina ez zen gai izan bere ezagupena umeei enpatiaz transmititzeko eta motibatzeko.

Uste dugu programazioa, epe la-

burrera, eskolako arlo guztietan txertatuko dela, tresna paregabea baita edozein ezagupen barneratzeko, "geografia edo historiatic hasi eta bide-hezkuntzako edukiak arte". Gure gaztetxoak **elebidun teknologikoak** izan daitezten saiatu behar dugu eta horretan ari dira dagoeneko Estatu Batuetako, Erresuma Batuko eta Eskandinaviako eskoletan. Gertuago, Nafarroan eta Madrilan ere hasiak dira arlo batzuk programazioaren bidez erakusten.

Zorionez, Kode-Eskolan gaur egun irakasten dena laster txertatuko da gure inguruko eskola-curriculumetan. Orduan, eta ez lehenago, ikasketak reglatuak bokazio teknologikoak suspertuko ditu, gaur egun gazteen artean krisian dagoen bokazioa hain zuzen, eta gure gazteak sortzaile digitalak izaten hasiko dira, ez kontsumista hutsak.

Azken finean, programazioaren bidez adin goiztiarretan landutako pentsamendu logikoa abantaila handia da bestelako ezagupenak barneratzeko orduan. Zientzia eta teknologiako arloetan erraztasuna izango du programazioa gaztetatik ikasi duenak, baina idatzi ere hobeto egingo du, eta baita laburtu eta mapa kontzeptualak egin ere. **Programatzeak edozein arlotako ideiak ordenatzen laguntzen du.** •



# argitalpenak



**Ikaro**  
Federico Delicado

## PAMIELA

Hilabete inguru darama haur batek bakarrik. Harrera zentro batera iritsi da, eta hango langileak hura laguntzen saiatuko dira. Guztiek uste dute gurasoek abandonatutako umea dela. Baina ez da hala; beste era bateko istorioa da liburuko protagonistarena. Askatasun, borondate eta esperantza mezua duen kontakizuna da. •



**Gose al zara, Kroko?**  
Jo Lodge

## IBAIZABAL

Kroko beti jaten ari da, eta beti da gose. Izugarri pozten da gosaria, bazkaria, merienda eta afaria ekartzen dizkiotenean. Baina Kroko ez da sekula asetzen. Zer edo nor jango ote du Krokok afalostean? Ziu 2 urtetik gorako irakurle bat baino gehiago harrutuko duela jolas-liburu honetan ematen den erantzunak. •



**Koloreak**  
Xavier Deneux

## TTARTTALO

Ukimena lantzeko eta oinarrizko kontzeptuak ikasteko kartoizko liburu berezia da. Erliebean dauden irudi koloretu eta deigarriek esker, 2 urtetik gorako haurrek koloreak desberdintzen eta 1etik 10era zenbatzen ikasteko aukera dute jolasten duten bitartean. Objektuen formak identifikatzeko ere balio du: sagarrak, loreak, hartzak... •



**Jeloskor nago**  
Asun Egurza / Leticia Garces

## IBAIZABAL

Sarri pertsoneri gertatzen zaien bezala, ipuin honetako katuari ere kosta egiten zaio jostailuak besteekin partekatzea. Tximinoari oparitu dioten baloia kenduko dio katuak, atzamarka eginez: horregatik, tximinoak ez du katuarekin gehiago jolastu nahi, berriro ere min egingo dion beldurrez. •



**Gauoko ekorra**  
arsEdition

## TTARTTALO

Altxa itzazu orri hegaldunak eta begiratu azpian... Liburua sorpresaz betirik dago! Ikasi elkarren kontrakoa adierazten duten adjektibo eta egoerak modu dibertigarrian: handia-txikia, isiltasuna-zarata, beteta-hutsik... "Sorpresaliburua" bildumako beste lan bat da, irakurlearentzat ustekabez betea. •



**Bizipoza auzolan**

## IRRIEN LAGUNAK

Irrien Lagunak Gizartegintza Elkar-tea osatzen duten erakundeekin egindako CD-liburua da. Orotara, 22 elkar-teren gaineko informazioarekin, 22 komikirekin eta 22 abestiren ondu dute proiektua. Bertsolari eta idazle ugari hartu dute parte bertan; komikietako testuak Amagoia Mujikak egin ditu eta marrazkiak Jose Anjel Lopetegik. •

# hik hasi-ren proposamena

'ARBEL BELTZA' ERAKUSKETA

## Euskal hezkuntzaren argi-ilunak bisitagai

**XX. mendean euskal irakaskuntzak izan duen bilakaeraren inguruko erakusketa ireki dute Donostiako Aiete Kultur Etxean, Donostiako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak elkarlanean antolatuta. Bereziki, 36ko gerrako eta frankismo garaiko hezkuntza-jarduerak azpimarratzen ditu, Francoren erregimenaren pean “sistema totalitarioa iraunarazteko oinarritzko zutabe” bilakatu baitzen hezkuntza. Abenduaren 16an ireki zen erakusketa, eta martxoaren 13ra arte egongo da zabalik. Bisita gidatu espezifikoak antolatu dituzte ikastetxeentzat, eta 11 eta 18 urte bitarteko ikasleei zuzentzen zaizkie.**

Domund egunez dirua emateko itsulapikoa, nesken josketarako otzara eta armazoia, maisu-maistra batzuek ikasleak jotzeko erabiltzen zuten arbazta, “emakume ona” nola izan ikasteko eskuliburua, ikasmahaiak, ikastetxeetako aktak, kartelak, argazkiak, liburuak... Horiek guztiak eta gehiago ikus daitezke Aiete Kultur Etxean (Donostia) bisitagai dagoen *Arbel Beltza: euskal hezkuntzaren urte ilunak* erakusketan. Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailak prestatu du Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean, besteak beste,



frankismo garaiko maisu eta maistrak omentzeko xedez. Bereziki, 36ko gerraren hasieratik Francisco Franco diktadorea hil arteko euskal irakaskuntzaren berri eman nahi izan dute erakusketaren bidez. Baina, horrez gain, XIX. mendearen hondarreko euskal irakaskuntza, errepublika garaikoa, frankismokoa, klandestinitatean sortutako lehenengo ikastolak edota Euskal Herriko hasierako unibertsitatea ere jorratzen ditu erakusketak. Berori osatu ahal izateko, 50 erakundek eta norbanakok baino gehiagok utzi dituzte objektuak eta argazkiak, eta beste hainbestek euren lekukotasunak eskaini dituzte. Era-kunde horien artean daude, besteak

beste, Madrilgo Liburutegi Nazionala, Salamancako Agiritegi Historikoa, Frantziako Agiritegi Historikoa edota Kutzaren Fototeka.

Izenak iradokitzen duen moduan, *Arbel Beltza* erakusketak euskal irakaskuntzak XX. mendean zehar bizi izandako arorik ilunenean jartzen du arreta. Izan ere, bertan aditzera ematen denez eta erakusketaren ardura-dunek azaldu dutenez, aldi hartan, “hezkuntza frankismoko sistema totalitarioaren oinarritzko zutabe bihurtu zen, ikasleak doktrinatu, eta Eliza katolikoa eta falangea egin ziren hezkuntza-monopolioaren jabe, erregimena iraunarazteko”. Hortaz, Aiete Kultur Etxera hurbiltzen diren bisita-



riek Errepublika garaian eta Frankismoan erabiltzen zituzten ikasliburu-  
 arteen arteko alde ezagutu ahal izango  
 dute, edota horietatik ikasleek erabiltzen  
 ziren Xabiartxo eta horrelako material  
 didaktikoetara zegoen alde ikusiko dute.  
 Gainera, historiko gertakari “beltzen” berri  
 jaso ahal izango dute, hala nola, Elvira  
 Zipitria andereñoaren ikasgelako arbela  
 mehatxuzko esaldiz beteta agertu zene-  
 koa. Gaur egungo heldu askoren ikasle  
 garaietan nahitaez jakin beharreko  
 “Cara al sol” nahiz eguneroko errezoak  
 egiteko erabiltzen zuten arrosarioa ere  
 ikus daitezke bertan.

Lehenengoz, Txiki Zabalo marrazkilariak  
 1993. urtean Euskal Estatutuaren kartel  
 baterako egin zuen jatorrizko zirriborroa  
 ere ikusgai dago, eta Iñaki Egañak garai  
 hartako hezkuntzaren inguruan egindako  
 argitalpen bat ere publikatu dute. Testu  
 horretan, Gipuzkoan 1936tik 1942ra bi-  
 tartean baztertu eta zigortu zituzten  
 140 maisu eta maistren izenen zerrenda  
 bat dator. Hain zuzen ere, Donostiako  
 Udalak memoria historikoa berreskuratzeko  
 egin nahi duen ahaleginaren emaitza da  
 erakusketa. Juan Karlos Izagirre Donos-  
 tiako alkatearen hitzetan, erakusketaren  
 helburua da gerra zibil garaian nahiz diktadura  
 aldiak “jazarpena, indarkeria, bidegabekeria  
 eta irainak jasan zituen maisu-maistrak  
 gogoratzea eta oharatzea”. Xede horrekin,  
 Aranzadi Zientzia Elkarteak lan handia egin  
 du garai haiek bizi izan zituzten pertso-  
 nen lekukotasunak biltzen, hautatzen eta  
 ikertzen. “Urte haietan, izan ere, ehunka  
 maisu-maistra baztertu eta bota zituzten  
 beren ikasgeletatik erregimen frankistarekin  
 bat ez etortzeagatik, eta milaka haurrek  
 kolpeak, zigorrak eta umiliazioa pairatu  
 zituzten”.

Erakusketak dibulgazio-izaera duenez,  
 Donostiako Udalak eta Aranzadi Zientzia  
 Elkarteak bisita gidatuak antolatu dituzte  
 ikastetxeetako 11 eta 18 urte bitarteko  
 ikasleentzat, erakusketa itxi bitartean.  
 Hitzordua 943 48 1975 telefonora deituta  
 eska daiteke.



## ‘Arbel beltza: euskal hezkuntzaren urte ilunak’ erakusketa

- XX. mendean euskal hezkuntzak izan duen bilakaeraren inguruko erakusketa da.
- Objektuak, argazkiak, liburuak, bideoak eta garai hartako lekukotasunak eta datuak biltzen ditu.
- Donostiako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak prestatu dute.
- Martxoaren 13ra arte dago irekita. Asteartetik igandera. Astelehen eta jaiegunetan itxita.
- Aiete Kultu Etxean (Aiete pasealekua 63, Donostia) bisita daiteke.
- Serrera doakoa da.
- Ikastetxeentzako, bisita gidatuak antolatu dira (11 eta 18 urteko ikasleei zuzentzen zaizkie).
- Erreserbak 943 481975 telefono-zenbakira deituta egin behar dira.



# atzeko atetik



**Naroa GAINZA**

MUSIKARIA ETA IRAKASLEA

Gaur borobilean eseriko gara elkar ondo ikusteko.

- Nola sentitu zara Peru? - Ez dakit, zergatik?

- Eta zu, Arane? Zu nola sentitu zara? - Ni ondo...

- Zuk zer diozu, Aitor? - Ba...

Ia gehienek burua makurtzen dute, ez dute sentitu dutena azalera nahi besteen aurrean. Beldur dira, agian horrek min emango die, edo besteen begietara gutxiago sentituko dira, akaso barre egingo diete...

Burua makurtzen ez dutenek harridura aurpegiarekin begiratzen dute...

Otsaila izango zen hau entzun nuenean: -Ez dut nahi, ez dut eskolara joan nahi, ez naiz zoriontsu.

Larri utzi ninduen ikasle hari entzunda-koak. Nire lehenengo urteak ziren irakaskuntzan, ikasleak euskalduntzea zen nire helburu nagusia, beste helburuak ez nituen oso argi, egia esan...

- Nola sentitu zara Maialen? - Ba... alai! Asko gustatu zait jolasa.

- Eta zu Jon? - Ez oso ondo, ez dute esan dudana kontuan hartu...

- Eta zu Julen? Zelan sentitu zara? - Gaur triste samar nago, ez dut hitz egin nahi...

Inork ez ninduen inoiz galdetu zelan sentitzen ziren nire ikasleak beraien ikasgaietan, euren jarreraz hitz egiten zidaten soilik, egiten ez zuten guztiaz, jarrera txarrak eta eramango zituzten notei buruz. Akademikoegiak ziren helburu denak eta ez zen ume haien errua alde kognitiboa horren garatua ez izatea...

## Senti nazazu...

Nolako eragina du pertsona batek taldean? Nolako taldeak pertsona batengan? Eta irakasleak? Zer nolako eragina izango du irakasle batek ikasleengan?

Hau buruan dudalarik, andereño Ikerne-ekin gogoratu naiz. Bere pultseren musika gogoratzen dut marrazkiak koloreztatzen zituenean, bere altzoan eseri eta goxotasunez hitz egiten ninduenen, beti euskaraz... Andereño Ikerne gogoratzen dut kariño handiz. Ostiraletan errenkada luze batean eseri eta erregalza banatzen zigun, bakoitzari bi.

- Nola sentitu zara, Udane? - Oso ondo,

- Nola sentitu zara zu, Naia? - Ni ez nau inork lagundu, txarto sentitu naiz.

- Julen, zelan zaude gaur? - Hobeto nago, eskerrik asko.

Gabriel ere gogoratu dut, nerabezaroan hurbildu zitzaidan irakaslea. Ez nintzen ez ikasle fina izan sasoi batean, klaseko orduak milaka hitz idazten ematen nituen, musika, igeriketa eta literatura interesgarriagoak ziren niretzat matematika edo fisika eta kimika baino. Egun batez, Gabriel 10 minutuz elkartu zen nirekin, begietara begira hitz egin zidan, konfiantzaz, berak ez ninduen izoratu nahi, lagundu nahi ninduen baina ez zekien nola...

- Nola sentitzen zara taldean, Nerea? - Ez oso ondo.

- Eta zu, Mikel? - Batzuetan ondo, besteetan ez hainbeste...

Laurak, unibertsitateko irakasleak, nire poema eta narrazio bilduma eskatu zidan irakurtzeko, bera idazlea zen eta nik bere lana miresten nuen. Hala zioen nire letren artean utzi zuen post-itak: "Garrantzitsua badauzu: pasioa, deskribatzeko grina eta indarra. Ez utzi guztiz amatatzen orain pizturik duzun sumendia". Euskarako irakasle izan nuen Laura, hurbila eta nortasun handikoa. Geroztik idazten jarraitu dut, euskaraz batez ere.

- Arkaitz, garrantzitsua al zara taldean? - Noski, besteak bezain garrantzitsua.

- Eta zu, Maider? - Baietz uste dut, denok gara inportanteak taldean, ez?

Nirekin hurbilak izan ziren irakasleak gogoratzen ditut, ulertu nindutenak, nire azale-

an modu batean edo bestean jarri zirenak... Maitasunez tratatu nindutenak... Emozio haiek, momentu inportante haiek, euskaraz bizi izan nituen, irakasle haiek eredu ziren niretzat, euren eta ziurrenik euren hizkuntza ere, agian horregatik eta bidetik gertatu zitzaizkidan beste esperientzia on batzuegatik aukeratu nuen euskara bizitza honetan aurrera egiteko.

- Zer kontatuko diguzu gaur, Beñat? - Oso pozik nago, talde osoak helburu bat lortu du.

Nire 12. ikasturtea da irakaskuntzan eta azkenengo 5ak Euskal Giroitze Barnetegietan eman ditut lanean. Barnetegiak; pertsonak euren emozioekin batera hazteko eskolak. Sentitzen ikasteko etxeak, modu kontzientean emozioak lantzeko tokiak, ikasle parekideak eraikitze eremuak, taldea indartzeko lekuak, euskaraz sentitu eta bihotza euskaratzeko planetak. Barnetegiak; eskoletako errealitatek urrun dagoen sistema.

- Zer esan nahi duzu, Leire? - Nik beldurra nuen baina Jonek eskutik eraman nau eta konfiantza eman dit.

XXI. mendeko eskola planteamendu kompetitiboak, pertsona ez zoriontsuak hezten ditu. Sistema kapitalistak, kontzientzia materialistak, ikasle bakoitzari ez egokitutako helburuak, curriculum itogarria, goxotasun ezak, ...

- Joan aurretik zerbait esan nahiko zenukete?

- Ni oso gustura sentitu naiz!

- Nik ez dut errenkadetan eseri nahi gelan, horrela ez dugu elkar ikusten.

- Orain guztiekin jolasten dut!

- Nire lagunekin euskara gehiago hitz egin dut.

- Niri hasieran ez zitzaidan gustatzen nire sentimenduei buruz hitz egitea, ez nagoelako ohituta, baina gero normala iruditu zait.

Gaur egun, barnetegietan ikasi eta sentitutakoa eta gero, nire helburua ikasleak goxotasunez tratatzea da, norberari behar dituen aukerak eskainiz. Horrela, agian, egunen batean, atzera begiratzean nirekin gogoratuko dira eta nire hizkuntza aukeratuko dute.



# 51 ERREZETA IRAKASLEENTZAT.

NOLA KOZINATU BOLUNTARIO-TALDE BAT HIRE eskolan.

Materiala lortzeko moduak:

\*Gure web gunean eskatuz: [www.educacion.alboan.org](http://www.educacion.alboan.org).

\*Posta elektronikoaren bidez: [educacion@alboan.org](mailto:educacion@alboan.org)

\*Ditugun egoitzetara hurbilduz: Bilbo, Donostia, Gasteiz edo Iruñea.

\*Telefonoz eskatuz: 94 415 11 35.

\*Gure web gunean dagoenez, handik ere jaitsi liteke materiala.

**Hezitzaileentzako, irakasleentzako eta begiraleentzako materiala da.**

Materialaren prezioa: **10 euro.**

**[www.alboan.org](http://www.alboan.org)**

# Ondo trebatuta, etorkizuna gurea da



Aurrematrikula:  
otsailaren  
2tik 13ra

Euskal Eskola  
Publikoa

Online aurrematrikula:  
[www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net)

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO